



## **IRAGARKIA**

Alkateak 2026ko martxoaren 26an emandako dekretu baten bitartez irabazi asmorik gabeko elkarte edo entitateentzat 2026. urterako ezarri diren dirulaguntza-programen deialdi irekia onartu da eta honen bidez argitaratzen da:

### **IRABAZI ASMORIK GABEKO ELKARTE EDO ENTITATEENTZAT 2026. URTERAKO EZARRI DIREN DIRULAGUNTZA-PROGRAMEN DEIALDI IREKIA**

#### ZIOEN AZALPENA

Begarako Udalak 2025eko urtarrilaren 27an egindako bileran onartu zuen Bergarako udaleko dirulaguntzen plan estrategikoa 2025-2027. Bertan lerro estrategiko desberdinak jasotzen dira eta tartean honako hauek:

1. lerro estrategikoa: Gizarte-ekintza
2. lerro estrategikoa: Garapenerako lankidetzak
3. lerro estrategikoa: Kultur dinamizazioa
6. lerro estrategikoa: Kirolaren sustapena
7. lerro estrategikoa: Auzoak, Landa-garapena, Ingurumena eta Iraunkortasuna.

Halaber, lerro horietako bakoitzean, besteak beste, honako hauek:

1. lerro estrategikoa: Gizarte-ekintza
  - 7. ekintza: Gizarte Zerbitzuen arloan diharduten elkarteei dirulaguntzak
2. lerro estrategikoa: Garapenerako lankidetzak
  - 1. ekintza: Gobernu kanpoko erakundeei dirulaguntza
3. lerro estrategikoa: Kultur dinamizazioa
  - 1. Ekintza: Herriko kultur jarduerak sustatzeko dirulaguntzak
6. lerro estrategikoa: Kirolaren sustapena
  - 1.ekintza: Kirol taldeei ohiko dirulaguntzak
7. lerro estrategikoa: Auzoak, Landa-garapena, Ingurumena eta Iraunkortasuna.
  - 1.ekintza: Bergarako udalerraren eremuan ingurumen izaerako jarduerak egiteko diren dirulaguntzak.

Gauzak horrela, 2026ko urtealdirako onartutako udal aurrekontuetan, diru-izendapenak egin ditu irabazi asmorik gabeko elkarte edo entitateen urteko jarduera edota ekintza desberdinak sustatzeko.



Bestalde, Udalak nahi du nahiz eta ematen diren dirulaguntzak desberdinak izan, deialdi bateratu bat egitea irabazi asmorik gabeko elkarte edo entitateei araudi-erreferentzia bakarra emateko eta, aldi berean, espedienteak izapidetzean egin beharreko kudeaketa administratiboak samurtzeko.

Oinarrien egitura honakoa da:

**- Oinarri orokorrak**

Irabazi asmorik gabeko elkarte edo entitateei zuzendutako dirulaguntza lerroetan aplikagarriak izango direnak, ez bada oinarri espezifiko bakoitzean beste zeozer zehazten.

**- Oinarri espezifikoak**

Dirulaguntza lerro bakoitzari aplikagarriak direnak eta non dirulaguntza bakoitzaren berezitasunak zehazten diren; hala nola, dirulaguntza esleitu eta banatzeko irizpideak, aurrerakinak emateko aukera, aurkeztu beharreko agiriak eta abar.

## I. TITULUA

### ONARRI OROKORRAK

#### **1. artikulua. Xedea**

Dirulaguntza hauen xedea da irabazi asmorik ez duten elkarte edo entitateei jarraian zehazten diren dirulaguntzak ematea:

- 1.- Garapenerako lankidetzak-programak lantzen dituzten Gobernu Kanpoko Erakundeentzako (GKE) dirulaguntzak
- 2.- Gizarte-zerbitzuen arloan diharduten elkarteentzako dirulaguntzak.
- 3.- Kultur elkarte eta taldeek egiten dituzten urteko jarduerak finantzatzeko laguntza programa.
- 4.- Bergarako kirol elkartei ohiko eta ezohiko jarduerak finantzatzeko laguntza edo dirulaguntza programa
- 5.- Ingurumeneko elkarteek egiten dituzten urteko jarduerak finantzatzeko laguntza programa

Dirulaguntza horiei aplikatuko zaie titulu honetako ondorengo artikuluetan jasotakoa eta, hor zehaztuta ez dagoenean, dirulaguntza zehatza arautzen duten oinarri espezifikoetan jasotakoa. Kontraesana balego lehentasuna edukiko du oinarri espezifikoetan jasotakoak.

#### **2. artikulua. Araudi aplikagarria**

Dirulaguntza hauek emateko eta udalaren eta onuradunen arteko harreman juridikoa zehazteko, bete egin beharko dira programa arautzen duten oinarriak eta dirulaguntza ematean indarrean dauden gainerako arauak.



Oinarri espezifikoek bestelako erregulazio bat berariaz ezartzen ez badute behintzat, oinarri orokor hauetan ezarritako xedapenak eta baldintzak aplikatuko zaizkie deialdi honen barruan udalak onartutako laguntza edo dirulaguntza programa guztiei.

Oinarriotan (oinarri orokorretan edota espezifikoetan) xedatuta ez dagoen guztian, honako hauek aplikatuko dira: Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra, 887/2006 Errege Dekretua, Bergarako udaleko Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra, Bergarako Udalaren udal aurrekontuaren araua, eta gai honen inguruan indarrean dauden gainerako arauak.

### **3. artikulua. Onuradunak**

Arau espezifikoetan ez badago zehaztuta zeintzuk izan daitezkeen onuradunak, laguntza jaso ahal izango dute egoitza eta jardute eremua Bergaran duten irabazi asmorik gabeko elkarte edo entitateek, deialdiaren arabera,—eta dirulaguntzak eskuratzeko 38/2003 Legean eta Bergarako udaleko Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrean ezarritako baldintzak betetzen badituzte, besteak beste, ordenantzako 6 eta 8 artikuluetan jasotakoak.

Ez dira Bergarako Udalaren dirulaguntzen onuradun izango sexuaren aldetik edo 1/2023 Legegintzako Dekretuak (martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistatik Gabe Bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena) 3-1 artikuluan jasotako diskriminazio anizkoitzeko faktoreen aldetik diskriminatuak diren jarduerak egiten dituzten pertsona fisiko edo juridikoak. Era berean, ez dira onuradun izango sexu-diskriminazioagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik administrazio-zehapena edo zehapen penala jaso dutenak ere, dagokion zehapenean ezarritako aldian.

Ezin izango dira ere onuradun izan honako egoeratakoren batean aurkitzen diren pertsona fisiko edo juridikoak:

a) Epai irmoz zigorturik daudenak dirulaguntzak jasotzeko eskubiderik ez izatera, 38/2003 Legearen, Tratu Berdintasunari eta Diskriminaziorik Ezari buruzko uztailaren 12ko 15/2022 Legearen, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauaren edo aplikagarri den beste zeinahi arauaren arabera.

b) Indarreko legeriak botere publikoei dirulaguntzak ematea galarazten dien edozein inguruabarren pean daudenak.

### **4. artikulua. Eskabideak**

Aurkezten diren laguntza-eskabideak udalak prestatutako eskabide-ereduaren arabera idatziko dira. Eskabide-ereduak, orokorrak nahiz espezifikoak —dagokion kasutan—, oinarri-arau hauetan datoz eranskin gisara, eta interesa duten guztiek eskuragarri izango dituzte bai udal bulegoetan bai udalaren web-orrian ([www.bergara.eus](http://www.bergara.eus)).

Eskatzailearen ordezkari legalak aurreko paragrafoan aipatutako eskabideak bete eta sinatu beharko du.

### **5. artikulua. Eskabideak aurkezteko lekua**

Eskaerak Udaleko Erregistro Elektronikoko Orokorrean aurkeztu beharko dira oinarri espezifiko bakoitzean zehaztutako epean.

## **6. artikulua. Aurkeztu beharreko dokumentazioa**

Eskatzaileak eskaera egingo du udalak prestatutako inprimakiak erabilia. Oinarri espezifikoen zehazten da zein inprimaki erabili behar dituen eta horiekin batera beste zein dokumentu aurkeztu behar dituen.

Horri dagokionez, jakinarazten da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 28. artikuluan ezarritakoaren arabera, interesdunek eskubidea dutela dokumenturik ez aurkezteko honako egoera hauetakoren bat gertatzen denean:

a) Dagoeneko korporazioaren esku egotea; kasu horretan, ofizioz sartu ahal izango dira, baldin eta eskatzaileak eskabidean honako alderdi hauek adierazten baditu, eta emakida-prozeduraren instrukzioaz arduratzen den organoak egiaztatu beharko ditu:

- 1) Zein egunetan eta zein organo edo bulegotan aurkeztu edo, hala badagokio, eman ziren.
- 2) Aurkezpena eragin zuen prozeduraren izendapena. Dirulaguntzen deialdia denean, argitalpenaren epigrafea eta urtea zehaztuko dira.

Administrazioaren esku dauden datu eta dokumentuek indarraldia galduko dute, bai baliozkoak ziren aldia amaitu delako, bai prozeduran aurkeztu zirenetik bost urte baino gehiago igaro direlako. Nolanahi ere, udalak interesdunari berriro aurkezteko eskatu ahal izango dio, ebazteko beharrezkoa den edozein alderdi behar bezala egiaztatu gabe gelditu bada.

b) Beste edozein administrazio eginak izatea. Kasu horretan, Bergarako Udaleko sail eskudunak zuzenean kontsultatu edo eskatu ahal izango ditu oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzeke behar dituen datuak eta/edo dokumentuak, salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu arrazoiak emanez.

Interesdunak era arrazoituan bere datuak kontsultatzearen aurka egiten badu, dirulaguntza izapidetu ahal izateko behar den dokumentazio guztia aurkeztu beharko du.

Hala ere, dokumentua eskuratzea materialki ezinezkoa den kasuetan, eskatzaileari eskatu ahal izango zaio dokumentua aurkezteko, edo, bestela, dokumentu horren bidez egiaztatutako betekizunak beste bide batzuen bidez egiaztatzeke.

Baldintzak edo betebeharrak betetzen direla egiaztatzeke, Bergarako Udalak honako kontsulta hauek egingo dizkie beste administrazio batzuei:

- Foru Ogasunei:
  - Zerga-betebeharrak egunean izatea.
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrari (GSDO):
  - GSDOrekiko obligazioen ordainketan egunean egotea
- Elkarteen Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroari:
  - Estatutuak
  - Lehendakariaren datuak



Interesdunak era arrazoituan bere datuak kontsultatzearen aurka egiten badu, dirulaguntza izapidetu ahal izateko behar den dokumentazio guztia aurkeztu beharko du. Hala badagokio, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- Dagokion Foru Ogasunaren ziurtagiria, zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duena.
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duten Gizarte Segurantzaren ziurtagiriak.
- Elkarteen Erregistroko agiria lehendakariaren datuekin eta elkarteen estatutuak.

Eskaera aurkezteak esan nahi du eskatzaileak edo entitate eskatzaileak oinarri hauetan eta espezifikoetan ezarritako baldintzak bere horretan onartzen dituela.

Ez da beste dokumentazio-motarik onartuko.

### **7. artikulua. Akats zuzenketa**

Eskabideak edo harekin batera doan nahitaezko dokumentazioak akatsen bat duenean edo osatu barik dagoenean, 10 eguneko epea izango dute interesdunek antzemandako akatsak zuzentzeko, udalak egindako errekerimendua jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Emandako epea akatsak zuzendu barik igarotzen bada, dirulaguntza eskabidean atzera egin duela ulertuko da, eta beste izapiderik gabe artxibatu egingo da.

### **8. artikulua. Erabakia hartzeko prozedura**

Laguntza-programaren arabera, dagokion departamentuak edo udal arloak izango du aurkeztutako eskabideak tramitatzeko ardura; beraz, sail horien esku egongo da, beren eskumenen eremuan, proiektuak aztertu eta ebaluatzeko erantzukizuna.

Zerbitzu teknikoek txostena egin eta gai horretan eskumena duen batzordeak irizpena eman ondoren –hala badagokio–, onartzeko erabaki-proposamena egingo dio organo eskudunari.

Alkatea izango da laguntzak edo dirulaguntzak emateko organo eskuduna.

### **9. artikulua. Erabakia**

Laguntza edo dirulaguntza emateko edo ez emateko erabakia arrazoitu egin beharko da, eta, edozelan ere, erabakia deialdiaren oinarri-arauetan jasotako irizpide objektiboen arabera hartu dela egiaztatu beharko da.

Eskatzaileari jakinaraziko zaion erabakian, berariaz agertuko dira xedea, dirulaguntza jasoko duten eskatzaileen zerrenda, zenbat emango zaien, nola ordainduko zaien, nola justifikatu behar duten eta baita oinarri-arau orokor hauetan, dagozkion oinarri espezifikoetan edo dirulaguntza ematen den unean indarrean dauden arauetan eskatzen diren gainerako baldintzak eta betebeharrak ere. Halaber, berariaz adieraziko da onartu ez diren edo ukatu diren eskabideen zerrenda.



## **10. artikulua. Publizitatea**

Emandako dirulaguntza guztien publizitatea egingo du udalak, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 18. artikuluan xedatzen denez.

## **11. artikulua. Onuradunen obligazioak**

Dirulaguntza emanez gero, oinarri-arau espezifikoetan jasotakoez gain, hauek ere entitate edo pertsona onuradunaren betebeharrak izango dira:

a) Dirulaguntza ematea oinarritu duen helburua betetzea, proiektua betearaztea, ekintza gauzatzea edo jokabidea hartzea.

b) Dirulaguntza eman duen organoari honako hauek justifikatzea: betebeharrak eta baldintzak bete izana, ekintza gauzatu izana eta dirulaguntza jaso edo erabiltzearen helburua bete izana.

c) Dirulaguntza ematen duen organoak eta eskuduntza izendaturik duten estatuko nahiz erkidegoko kontrol-organoei egin ditzaketan egiaztatze-jardunak eta finantza-kontrolak onartzea; bai eta aurreko jardunak burutzeko errekeritutako informazioa ematea ere.

d) Dirulaguntza eman duen organoari jakinaraztea diruz lagundutako ekintzak finantzatzen dituzten beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo bitarteko batzuk lortu izana. Jakinarazpena, horien berri izan eta berehala egin beharko da, eta, edozelan ere, fondoei emandako erabilpena justifikatu baino lehen.

e) Ogasunekiko betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoetan egunean egotea. Halaber, Bergarako Udalarekin inongo motatako zorrik ez izatea eta betebeharrak fiskaletan, zergatan eta zergaz aparte tasetan eta prezio publikoen ordainetan egunean egotea. Bergarako Udalak ofizioz egiaztatuko du elkarte Bergarako Udalarekin egunean dagoela.

f) Jasotako fondoak zertan erabili diren egiaztatze dokumentuak gordetzea, gutxienez sei urtez, bai eta dokumentu elektronikoak ere, egiaztatze eta kontrol jardunak burutu daitezkeen.

g) Jasotako fondoak itzultzea oinarri hauetan aurreikusitako kasuetan edota indarrean dagoen gainontzeko legediak jasotzen dituen kasuetan.

h) Diruz lagundutako jarduera garatzeko behar beste baimen lortzea, eta baimenon xedapenak betetzea.

i) Jardueraren garapenari buruzko informazioa ematea, udalaren aldetik jarraipena egin edo laguntzeko.

j) Dirulaguntza emateko kontuan hartu den edozein gorabehera aldatuz gero, dirulaguntza eman duen organoari jakinaraztea.

k) Neurriak hartzea diruz lagundutako ekintzen berri emateko, eta horietan adierazi beharko da Bergarako Udalak diruz lagundu duela.

Ateratako eskuorri, kartel, sare sozialetan edo bestelako publizitate euskarrietan, Bergarako Udalak diruz lagundu duela adierazi beharko da. Halaber, aurkezpen edo prentsaurrekoak egiten baditu, Bergarako Udalari gonbidapena egingo dio.

Gainera, baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Euskararen erabileraren inguruan: Dirulaguntza hauek jasotzeko ezinbestekoa izango da, gutxienez, euskara erabiltzea ekitaldi eta idatzizko komunikazio publikoetan: iragarki, ohar eta abar.

Ahozko komunikazioetan, bi hizkuntzak erabiliz gero, euskarari emango zaio lehentasuna, euskarazko aurkezpena erdarazkoaren aurretik eginez.

Era berean, idatzizko komunikazio elebidunetan ere, euskarari emango zaio lehentasuna, bai kokalekuaren aldetik (euskarazkoa erdarazkoaren gainean), bai neurriaren aldetik. Testuak, hizkuntza aldetik, zuzen idatziak daudela egiaztatzeko, Euskara Zerbitzura eraman ahalko dira.

Antolatzen dituzten jarduerak (ikastaro, hitzaldi, entrenamendu eta era guztietako ekitaldiak...) euskaraz izatea bultzatuko da, bereziki gazteei bideratuak direnean, eskolako irakaskuntzaren osagarri izan daitezten.

- Gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari buruz:

1.- Bete egin beharko ditu 1/2023 Legegintzako Dekretua –martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistarik Gabe Bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena– eta 3/2007 Lege Organikoa –Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarriakoa–.

2.- Udalak markatutako irizpideak jarraitu beharko ditu elkarteak. Beraz, jarduera, proiektu edo programarekin lotutako iragarki eta komunikazioetan ez da erabiliko ez hizkera ez irudi sexistarik, estereotipo eta rolak alde batera utziz. Era berean, ezingo da diskriminatu sexu-arrazoiengatik. Eta emakumeen presentzia eta parte hartzea eremu guztietan ahalbidetuko da (zuzendaritzan, bazkideen artean, erabiltzaileen artean eta abarretan).

Edozein sari-mota emateko sortzen diren hautaketa-epaimahaietan trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua bermatuko da. Ordezkaritza orekatua izango da lau kide baino gehiago dituzten epaimahaietan sexu bakoitzak gutxienez % 40ko ordezkari izatea.

- Adikzioen prebentzioari dagokienez, dirulaguntza hauek jasotzeko ezinbestekoa izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Adikzioen 1/2016 Legeak edari alkoholduen publizitatea, sustapena, banaketa eta kontsumoa mugatzeko neurriak betetzea, bereziki bere jarduna adingabeei zuzendutakoa denean. Horrelako neurriak ere hartu beharko dira tabakoaren adikzioa prebenitzeko.

3.- Sexuaren aldagaia, sistematikoki txertatzea egiten diren estatistika, inkesta eta datu bilketa guztietan, bai eta udalari aurkeztu beharreko txostenetan.

l) Dagozkion neurriak hartzea, dirulaguntza-jasotzaileak antola ditzakeen jarduera edo ikastaro guztietan –betiere bertan adingabekoek parte hartzen badute eta udalak diruz lagundu baditu– bete daitezten 1/1996 Lege Organikoa ezarritakoa –urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoa, Adingabeen Babes Juridikoari buruzkoa– eta 26/2015 Lege Organikoa ezarritako –uztailaren 28ko 26/2015, Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema Aldatzen duena–; eta horretaz gain, jarduera horiek gauzatu behar dituztenei buruz Sexu-delitugileen Erregistro Nagusiaren ziurtagiri negatiboa aurkezteko derrigortzea.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorra aplikatuz, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Legearen Zortzigarren Xedapen Gehigarria aplikatuz



eta, oro har, 39/2015 Legearen 28. artikuluan jasotako aurreikuspena aplikatuz, dirulaguntza hauek kudeatzeko ez da beharrezkoa izango interesdunaren baimena, eta Udalak bere eskumenak erabiliz datuen zehaztasuna egiaztatzeke behar beste egiaztapen egin ahal izango du, bai eta bere esku dauden edo beste edozein administraziok egin dituen dokumentuak kontsultatu eta eskuratu ere.

Baldintzak edo betebeharrak betetzen direla egiaztatzeke, Bergarako Udalak honako kontsulta hauek egingo dizkie beste administrazio batzuei:

- Foru Ogasunei:
  - Zerga-betebeharrak egunean izatea.
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrari (GSDO):
  - GSDOrekiko obligazioen ordainketan egunean egotea
- Elkarteen Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroari:
  - Estatutuak
  - Lehendakariaren datuak

Interesdunak era arrazoituan bere datuak kontsultatzearen aurka egiten badu, dirulaguntza izapidetu ahal izateke behar den dokumentazio guztia aurkeztu beharko du. Hala badagokio, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- Dagokion Foru Ogasunaren ziurtagiria, zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duena.
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duten Gizarte Segurantzaren ziurtagiriak.
- Elkarteen Erregistroko agiria lehendakariaren datuekin eta elkarteen estatutuak

### **12. artikulua. Eskabideak baloratzeko irizpideak**

Eskabideak baloratzeko, laguntza-programa bakoitzaren oinarri-arau espezifikoean (II. tituluko dagokion kapituluan) jasotako irizpideak aplikatuko dira.

### **13. artikulua. Diruz laguntzeko gastu-kontzeptuak**

1. Diruz laguntzeko gastutzat joko dira diruz lagundutako ekintzaren edo proiektuaren izaerari erantzuteaz gain, dirulaguntzak arautzeko oinarriek ezarritako epean egin direnak, ez baldin badute oinarri espezifikoek beste zeozer zehazten.

Dirulaguntzak emateko deialdia arautzeko arau espezifikoek besterik xedatzen ez badute, ulertuko da gastuak egiteko epea (faktura sortzea eta fakturaren eguna), oro har, urte naturalarekin bukatuko dela, hau da, abenduaren 31n.

Halaber, gastu bat diruz laguntzeko, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 29. artikuluan xedatutakoa bete behar da, bai azpikontratatzeko eskatutako baldintzak bai legezko testu beraren 31. artikuluan ezarritakoa.

2. Honako gastu hauek ez dira diruz lagunduko:



— Fakturatzat edo legezko baliodun agiritzat hartu ezin diren gastuen agiriak eta bestelako dokumentuak.

— Bazkari, afari edo ostalaritzako bestelako kostuak, diruz lagundutako ekintzan parte hartu duten pertsonen sortutakoak izan ezik; halakoetan, egindako gastuaren eta lortu nahi den helburuaren arteko proportzionaltasuna gorde beharko da. Dena den, eta salbuespen gisa, udalak, dagokion akordioaren bidez, gastu-kontzeptu hori egiteko berariazko baimena eman ahal izango du.

#### **14. artikulua. Gehienezko diru-izendapena**

Deialdi honen oinarri-arau espezifikoetan zehazten da zer diru-kopuru esleitu zaion programa bakoitzari, bai eta handitu daitekeen edo ez.

Edozelan ere, oro har, eta oinarri-arau espezifikoetan kontrakorik xedatu ezean, aurrekontu-kopuru horrek muga-izaera izango du eta ezin izango da handitu ekitaldian bertan.

#### **15. artikulua. Aldi berean beste laguntza batzuk jasotzeko aukera**

Oro har, eta laguntza-programa bakoitzaren oinarri-arauek kontrakorik xedatu ezean, onartu egiten da udal dirulaguntza eta beste finantza-bide batzuk aldi berean eta batera eskuratzeko aukera. Finantza-bide horiek izan daitezke bai beste administrazio batzuetatik, partikularretatik edo abarretik jasotako dirulaguntzak, bai garatu nahi den proiektu edo jarduera finantzatzeko ezarritako ekarpenak edo kuotak.

#### **16. artikulua. Finantzaketa mugak**

Dirulaguntza honetaz gainera beste finantza-bide batzuk lortuz gero, eta oinarri-arau espezifikoek bestelakorik ezarri ezean, finantzaketa-muga egindako gastuaren % 100a izango da, hau da, udalaren dirulaguntzarekin ezin izango da inondik ere gain-finantzaketarik egon.

Horri dagokionez, eta dirulaguntzak emateko udal erabakietan berariaz bestelako doitze edo erregularizazio sistemarik adierazten ez bada, udalak, dirulaguntzaren bukaerako ordainketa edo likidazioa egiterakoan, gain-finantzaketarik gerta ez dadin, zuzendu egingo du ordaindu beharreko kopurua, benetan izandako gastuen eta diru-sarreraren arabera, eta, hala badagokio, gerta daiteke ordaindutako aurrerakinaren zati bat edo aurrerakin osoa itzuli behar izatea onuradunak, edo berari itzuli behar izatea.

#### **17. artikulua. Dirulaguntza ordaintzeko modua**

Dirulaguntza entitate titular eskatzaileari ordainduko zaio, eskabide-ereduan hark emandako datuen arabera.

Oro har eta oinarri-arau espezifikoetan ordaintzeko beste era bat aurreikusten ez bada, konturako aurrerakinez ordaindu ahal izango da, eta oinarri-arau espezifikoetan beste kopururik adierazten ez bada, ordainketak honela egingo dira:

— Onartutako kopuruaren % 60, justifikatu beharreko aurrerakin gisara, onuradunak dirulaguntza onartu eta gehienez ere hilabeteko epean.



Dirulaguntza onartuta ulertuko da, emandako dirulaguntzaren jakinarazpena jasotzen duen hurrengo egunetik kontatzen hasita, 15 eguneko epean dirulaguntzari uko eginez idatzirik aurkezten ez badu.

— Gainerako % 40, organo eskudunak dirulaguntzaren likidazioa onartutakoan, hau da, diruz lagundutako programa edo jardueraren dokumentazio eta justifikazio osoa eta zuzena entregatu eta gero.

### **18. artikulua. Dirulaguntza gutxitzea**

Aurkeztutako gastuen zerrenda hasierako gastu-aurrekontua baino txikiagoa bada, oinarri-arau espezifikoek beste arauketarik xedatu ezean, dirulaguntza gutxitu egingo da koefiziente zuzentzaile bat aplikatuz. Koefiziente hori benetan erabilitako kopuruaren portzentajea izango da, hasieran eskatu eta onartutako kopuruarekiko.

### **19. artikulua. Dirulaguntzen justifikazioa**

Dirulaguntzen pertsona edo erakunde onuradunek nahitaez justifikatu beharko dute jasotako funtsak dirulaguntza ematea eragin zuen xederako erabili direla. Horretarako, justifikazio-kontua aurkeztu beharko dute, gastuen egiaztagiriak aurkeztuta, emandako dirulaguntza 60.000 eurotik beherakoa denean izan ezik; kasu horretan, nahikoa izango da justifikazio-kontu sinplifikatua aurkeztea.

Hala ere, dirulaguntza behar bezala aplikatzen dela egiaztatzeko, Bergarako Udalak laginketa-tekniken bidez egiaztatuko du, eta eskatzaileek aurkeztutako zerrenda xehatuaren faktura bat edo batzuk eskatuko ditu.

### **20. artikulua. Obligazioak ez betetzea. Itzulketa-kasuak**

1. Dirulaguntzen 38/2003 Legearen 36. artikuluan xedatutakoez gain, dirulaguntza emateko erabakiaren deuseztasun nahiz deuseztagarritasun kasuetan, bidezkoa izango da jasotako dirua itzularaztea eta berandutza-interesa eskatzea (dirulaguntza edo laguntza ordaindu den unetik aurrerakoa), ondorengo egoeraren bat gertatuz gero:

- a. Jasotako fondoak zertarako erabili diren justifikatzeko obligazioa ez betetzea, edo behar beste ez justifikatzea, ezarritako eran eta epeetan.
- b. Dirulaguntza eskuratu izana horretarako eskatutako baldintzak faltsutuz, edo dirulaguntza jasotzea galaraziko zuketena baldintzak ezkututuz.
- c. Dirulaguntza ematerakoan onuradunei ezarritako baldintzak ez betetzea.
- d. Dirulaguntza emateko oinarri den xedea ez betetzea, osoki edo zati batean.

Horri dagokionez, eta udalak berariaz besterik erabaki ezean, dirulaguntza ematerakoan onartu ziren jarduera edo programen % 50 baino gutxiago gauzatu izana bete gabeko jarduera edo programatzat joko da.

- e. Organo eskudunen kontrol-jarduerei uko egitea edo oztopoak jartzea.
- f. Zabalkunde-neurriak hartzeko betebeharra betetzen ez bada.
- g. Finantzak egiaztatzeko eta kontrolatzeko jardueri aurka egiten bazaie, aitzakiak nahiz oztopoak jartzen bazaizkie edo uko egiten bazaie, edota kontabilitate-, erregistro- nahiz kontserbazio-betebeharrak betetzen ez badira

eta, horren ondorioz, ezin bada egiaztatu jasotako funtsei zein erabilera eman zaien edo dirulaguntzaren helburua bete den.

h. Administrazioak onuradunei ezarritako betebeharrak eta horiek hartutako konpromisoak betetzen ez badira.

i. Laguntza edo dirulaguntza bakoitzaren oinarri espezifikoetan xedatutako gainerako kasuetan.

2. Diru-itzulketak udalak zehaztutako epeetan egin ezean, itzuli beharreko kopuruak premiamendu bidez ordainarazi daitezke.

### ***21. artikulua. Dirulaguntza itzultzeko prozedura***

1. Dirulaguntza eman zuen organoak berak izango du eskumena jaso den zenbateko osoaren edo zati baten itzulketa exijitzeko akordioa hartzeko.

2. Dirulaguntza itzuli arazteko jarraituko den prozedura izango da Dirulaguntzen Ordenantza Orokorreko 65. eta hurrengo artikuluetan jasotakoa.

3. Itzultzeko prozedurari arau-hauste administratibo baten ondorioz ekin bazaio, horren berri emango zaio organo eskudunari, dagokion zigor-prozedurari hasiera eman diezaion.

### ***22. artikulua. Dirulaguntza itzuli arazteko modua***

1. Itzultzeko prozedura, dirulaguntzaren eskatzaile edo onuradun gisa agertzen diren pertsona fisiko edo juridikoen aurka zuzenduko da, edo pertsona fisiko edo juridikoz osatuta dauden baina nortasun juridikorik ez duten taldeetako kideen aurka.

2. Dirulaguntza gehi dagozkion berandutza-interesak itzultzeko erantzukizun solidarioa edo subsidiarioa erabakitzeko, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorren 40. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

### ***23. artikulua. Bermeak***

Oinarri-arau espezifikoek edo dirulaguntza emateko akordio zehatzek besterik xedatu ezean, ez da beharrezkotzat jotzen emandako laguntzengatik udalaren aldeko bermerik eskatzea

### ***24. artikulua. Datu pertsonalen tratamendua.***

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorra aplikatuz, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Legearen Zortzigarren Xedapen Gehigarria aplikatuz eta, oro har, 39/2015 Legearen 28. artikuluan jasotako aurreikuspena aplikatuz, dirulaguntza hauek kudeatzeko ez da beharrezkoa izango interesdunaren baimena, eta Udalak bere eskumenak erabiliz datuen zehaztasuna egiaztatzeko behar beste egiaztapen egin ahal izango du, bai eta bere esku dauden edo beste edozein administrazioak egin dituen dokumentuak kontsultatu eta eskuratu ere.



### **25. artikulua. Oinarri-arauen interpretazioa**

Oinarri-arau hauek interpretatzerakoan sor daitezkeen zalantzak Alkateak erabakiko ditu, dena delako Batzorde Informatzaileak, hala badagokio, aldez aurretik programaren arabera txostena egin eta gero.

### **26. artikulua. Oinarrien aurkako errekursoak**

Oinarri-arau hauek onartzeko akordioaren aurka, zeinak administrazio bidea amaitzen duen, berraztertzeko errekurtoa jarri ahal izango da nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi-errekurtoaren aurretik eta hilabeteko epean; edo administrazioarekiko auzi-errekurtoa jarri ahal izango da zuzenean Donostiako Administrazioarekiko Auzi Epaitegian, bi hileko epean. Aipatutako bi epeak oinarri-arau hauek deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita zenbatuko dira.

Horrek guztiak ez du esan nahi, ordea, bidezkotzat jotzen den beste edozein egintza edo errekurso jarri ezingo denik.

## **II. TITULUA OINARRI ESPEZIFIKOAK**

Titulu honetan, dirulaguntza-programa bakoitzari dagozkien oinarri-arau espezifikoak kapituluka jasotzen dira, jarraian jasotzen den hurrenkerarekin:

1. kapitulua- Garapenerako lankidetza-programak lantzen dituzten Gobernuz Kanpoko Erakundeentzako (GKE) dirulaguntzak
2. kapitulua- Gizarte-zerbitzuen arloan diharduten elkarteentzako dirulaguntzak.
3. kapitulua- Kultura-entitateek egiten dituzten urteko jarduerak finantzatzeko laguntza programa.
4. kapitulua- Bergarako kirol entitateei ohiko eta ezohiko jarduerak finantzatzeko laguntza edo dirulaguntza programa
5. kapitulua- Ingurumen-entitateek egiten dituzten urteko jarduerak finantzatzeko laguntza programa

### **1. KAPITULUA**

#### ***Garapenerako lankidetza-programak lantzen dituzten Gobernuz Kanpoko Erakundeentzako (GKE) dirulaguntzak***

### **27. artikulua. Xedea**



Oinarri espezifiko hauen xedea da, kontuan hartuta oinarri orokorrek ere diotena, 2026an Gobernu Kanpoko Erakundeei dirulaguntzak emateko deialdia arautzea, betiere jarraian aipatzen diren bi eremuetako programak garatzeko:

- a) Bergarako herritarren artean munduko errealitatearen gainean kontzientzia kritikoa eta herrien arteko elkartasun kultura sustatzen duten sentsibilizazio eta lankidetzak ekintzak, Bergaran bertan egitekoak.
- b) Garapen-bidean dauden herrialdeetako bizilagunen baldintza sozial, ekonomiko eta kulturalak hobetzeko helburua duten programak.

Parte hartzen duen GKE bakoitzak proiektu bakar bat aurkez dezake eremu bakoitzerako (a) eremurako bat eta b) eremurako beste bat).

Dirulaguntza hauek 38/2003 Lege Orokorraren eta lege hori garatzen duen gainontzeko araudiaren menpe daude.

### **28. artikulua. Diru-izendapena**

Dirulaguntzen deialdi honetarako izendatu den kopurua 35.660,00 eurokoa da, eta finantzatuko da Gizarte Zerbitzuak GKE eta Elkarteei dirulaguntzak emateko duen partidatik: 1 3500.481.230.20.01 2026 (B.K. 563)

Aipatutako kopurua gehitu ahal izango da, Udal Aurrekontuaren exekuzio-oinarriek aurreikusten dutenaren arabera.

Kopuru hori ondoren adierazten den eran banatuko da:

- % 10 herrian bertan egingo diren sentsibilizazio edota lankidetzak-erlako ekintzetara bideratuko da.
- Gainerako % 90 garapen-bidean dauden herrialdeetako bizilagunen baldintza sozio-ekonomikoak garatu eta hobetzera zuzendutako ekintzetara bideratuko da.

### **29. artikulua. Departamentu arduraduna**

Gizarte Zerbitzuak.

### **30. artikulua. Onuradunak**

Laguntza jaso ahal izango dute legez eraturik dauden eta irabazi asmorik gabekoak diren Gobernu Kanpoko Erakundeek. Beren ekintzek deialdi honen xedearekin bat egin behar dute eta Euskal Autonomi Erkidegoan edo Nafarroan errolatuta egon behar dira; eta egoitza soziala, ordezkaritza bat edo administrazio-egitura iraunkor bat Bergaran edo Debagoienean izan beharko dute.

Deialdi honetatik kanpo geratuko dira Estatu, Administrazio Autonomo, Foru Aldundi eta Aurrezki Entitatearen baten menpeko erakundeak.



Oinarri orokorretako 3 artikuluan jasotako baldintzez gain honako baldintza hauek ere bete beharko dituzte:

- a) Betebehar fiskaletan eta Gizarte Segurantzakoetan egunean egotea; baita Bergarako Udalarekin ere.
- b) Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. ataletan adierazitakoaren arabera, dirulaguntza jaso ezin izateko kausetako batean ez egotea.

Ez dira Bergarako Udalaren dirulaguntzen onuradun izango sexuaren aldetik edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 3-1 artikuluan jasotako diskriminazio anizkoitzeko faktoreen aldetik diskriminatzaileak diren jarduerak egiten dituzten pertsona fisiko edo juridikoak. Era berean, ez dira onuradun izango sexu-diskriminazioagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik administrazio-zehapena edo zehapen penala jaso dutenak ere, dagokion zehapenean ezarritako aldian.

Halaber, ezin izango dira onuradun izan honako egoeratakoren batean aurkitzen diren pertsona fisiko edo juridikoek:

- a) Epai irmoz zigorturik daudenak dirulaguntzak jasotzeko eskubiderik ez izatera, 38/2003 Legearen, Tratu Berdintasunari eta Diskriminaziorik Ezari buruzko uztailaren 12ko 15/2022 Legearen, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauaren edo aplikagarri den beste zeinahi arauen arabera.
- b) Indarreko legeriak botere publikoei dirulaguntzak ematea galarazten dien edozein inguruabarren pean daudenak.

### ***31. artikulua. Eskabideak aurkezteko modua***

Interesatuak laguntza-eskaera Udaleko Erregistro Elektronikoro Orokorrean aurkeztu beharko du, udalak horretarako propio sortutako eskaera-inprimakia(k) erabilita. Ez da beste dokumenturik onartuko.

### ***32. artikulua. Eskabideak aurkezteko epea***

Dirulaguntza hau eskatzeko epea 30 lanegunekoa da deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

### ***33. artikulua. Eskaera egiteko aurkeztu beharreko agiriak***

Dirulaguntzak eskatzeko honako dokumentuak behar bezala beteta eta sinatuta aurkeztu beharko dituzte:

Sentsibilizaziorako



- Dirulaguntza-eskaera, F0098A (D01) inprimakia erabilia
- Dirulaguntza-eskaera - Proiektuaren laburpena, F0098 (D10) inprimakia erabilia
- Dirulaguntza-eskaera - Aurrekontua, F0098 (D14) inprimakia erabilia
- Dirulaguntza-eskaera - GK Eren datuak, F0098 (D16) inprimakia erabilia

#### Garapenerako

- Dirulaguntza-eskaera, F0098A (D01) inprimakia erabilia
- Dirulaguntza-eskaera - Proiektuaren laburpena, F0098 (D09) inprimakia erabilia
- Dirulaguntza-eskaera - GK Eren datuak, F0098 (D15) inprimakia erabilia
- Dirulaguntza-eskaera - Aurrekontua, F0098 (D18) inprimakia erabilia

Eskaerak artikuluko honetan aipatutako inprimakiei jarraituz ez aurkezteak laguntza ez onartzea eragingo du. Halaber, nahiz eta inprimakiak erabili, atal guztiak ez badira betetzen eta bertan proiektuak baloratzeko informazioa ez bada azaltzen, puntu horiek baloratu gabe geratuko dira.

### **34. artikulua. Eskabideak baloratzeko irizpideak**

Dirulaguntzak banatzeko orduan, honako irizpideak hartuko dira kontuan:

#### A.- Udalerrian bertan egingo diren *sentsibilizazio edota lankidetzaren ekintzetarako:*

##### 1.- Erakunde eskatzailea, 20 puntu:

- Erakundearen esperientzia: azken hiru urteetan egindako esku-hartzeak (zer egin duten, non eta zein emaitza lortu duten). 3 puntu
- Erakundeak Bergaran benetako presentzia duela erakusten du kide-kopuruarekin, publikora eskura dagoen ordezkariarekin, pertsonal teknikoarekin, Bergaran gauzatutako ekintzekin eta Bergaran beste elkarteekin edo herriko ekintzetan elkarlanean. 12 puntu
- Erakundeak duen misio, balore, helburu eta lan egiteko moduan erakusten du barneratuta dauzkala giza eskubideekin, ekologiarekin eta ingurumen iraunkorarekin bat datozen balioak, baita genero-ikuspegia ere. 5 puntu

##### 2.- Proiektua, 30 puntu:

- Proiektuak komunitatearen parte hartzea eta indartzea ahalbideratzen du: tokikoa eta globala lotu egiten dira, garapenari buruz jorrotutako gaia eta gure gizarte bergararra nolabait harremanetan jartzeko ahalegina egiten baitu. 4 puntu

- Proiektuak batez ere talde ahulenei eta /edo baztertuenei laguntzen die (haurrak, baserri eta/edo hiri inguru zapalduetako biztanleak, gatazka ingurukoak, errefuxiatuak, beren bizitokitik beste toki batera aldatutakoak edo itzultitakoak, etniagatik edo gizarte eta ekonomia kontuengatik baztertutakoak....). 9 puntu
- Zehatz-mehatz azaltzen dira proiektuaren helburuak, ekintzak, zein publikori doan zuzenduta, iraungo duen denbora. 7 puntu
- Koherentzia dago gaiaren, publiko hartzailearen, planteatutako helburuen, proposatutako aktibitateen eta bilatutako emaitza eta ondorioen artean. 4 puntu
- Edukiak, ekintzak eta bestelakoak zabaltzeko era publiko hartzaileari egokitzen zaio. 3 puntu.
- Aurrekontua planteatutako proiektuari egokitzen zaio. 3 puntu.

Hala ere, udalak joko balu ekintzak ez direla bideragarriak, ez litzateke gainontzeko alderdiak baloratzen hasiko.

Banaketatik kanpo geldituko dira, halaber, gutxienez 25 puntu lortzen ez duten eskaerak. Horretarako, dauden bi ataletako –entitatea eta proiektua– bakoitzean eskatzen diren puntu guztien erdia gutxienez izan beharko dute.

#### B.- Garapen-bidean dauden herrialdeetan burutuko diren *lankidetzak-ekintzetarako*:

##### 1.- Entitate eskatzailea, 20 puntu:

###### 1.1.- Gobernu kanpoko erakunde eskatzailea: 12 puntu

- Erakundearen esperientzia eta gaitasun teknikoa. 3 puntu
- Erakundeak Bergaran benetako presentzia duela erakusten du: kide-kopuruarekin, ordezkaritzarekin, pertsonal teknikoarekin. 6 puntu
- Erakundeak duen misio, balore, helburu eta lan egiteko moduan erakusten du barneratuta dauzkala giza eskubideekin, ekologiarekin eta ingurumen iraunkorrarekin bat datozen balioak, baita genero ikuspegia ere. 3 puntu

###### 1.2.- Bestaldeko entitatea, 8 puntu:

- Horrelako proiektuetan duen ibilbidea eta proiektua burutuko den eskualde eta populazioaren ezagutza du. 3 puntu.
- Erakundeak duen misio, balore, helburu eta lan egiteko moduan erakusten du barneratuta dauzkala giza eskubideekin, ekologiarekin eta ingurumen iraunkorrarekin bat datozen balioak, baita genero ikuspegia ere. 3 puntu
- Entitate eskatzailearen eta beste aldekoaren arteko lankidetzaren aurrekariak daude. 2 puntu

##### 2.- Proiektua, 30 puntu:

- Proiektuak komunitatearen parte hartzea eta indartzea sustatzen du: xede den biztanleriak parte hartzen du proiektuaren proposamen, burutzapen eta kudeaketan. Herri hartzaileko emakumeek eta gizonek parte hartzeko prozesu eta guneak sortzen laguntzen du. Elkartzeko egiturak indartzen eta sareak sortzen laguntzen du. Eta bere egiten ditu onuradunak formatzeko ekintzak eta parte hartutakoen arteko jakintzen eta esperientzien elkartrukatzearen sustapena. 6 puntu
- Proiektuak genero-ekitatea sustatzen du: Genero-arekiko kontzientzia izatea ahalbideratzen duten ekintzak egiten dira proiektuan. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatu eta sustatu egiten du. Emakumearen eskubideen defentsa eta sendotzea sustatzen du. 2 puntu.
- Proiektuak batez ere talde ahulenei edo eta baztertuenei laguntzen die (haurrak, baserri eta/edo hiri inguru zapalduetako biztanleak, gatazka inguruetakoa, errefuxiatuak, beren bizitokitik beste toki batera aldatutakoak edo itzultitakoak, etniatik edo gizarte eta ekonomia kontuengatik baztertutakoak...). 6 puntu.
- Proiektuak interes bereziko arlo hauek lantzen ditu: biztanleen garapen ekonomiko eta sozialen premiei erantzutea; giza eskubideak (tokian tokiko kultura, identitate, hizkuntzaren defentsa eta sustapena); balio ekologikoak (aberastasun naturalen aldeko errespetua eta babesa; ingurumen inpaktuen gaineko prestakuntza/salaketa). 6 puntu.
- Proiektuaren kalitate teknikoa: diagnostiko batean oinarritzen da (testuingurua, beharren analisia, beharrari lehentasuna eman zaion eta horren justifikazioa); proiektuaren definizioa (helburu orokorrak, zehatzak; zehazki zein populaziori dagoen bideratuta; egingo den esku-hartze zehatza; nola egingo den; eta espero diren emaitzak); proiektuaren koherentzia (justifikazioa, helburuen, esku-hartzeen eta bilatzen diren emaitzen artean); proiektuaren bideragarritasuna (egin nahi dena egiteko beharko diren baliabide tekniko, pertsonal, material edo ekonomikoak eta erakunde eskatzaileak dituenak edota eskatzen dituenak); proiektua iraunkorra izatea (dirulaguntza agortutakoan proiektuaren helburuak finkatuta gelditzea, kanpoko laguntzarik gabe). 8 puntu.
- Proiektuaren aurrekontua: aurrekontua aurkeztutako proiektuari egokitzen da; bideragarritasun finantzario osoa bermatzen du (proiektua burutzeko aurkeztutako aurrekontua; erakunde eskatzaileak jarriko duena; beste aldeko erakundeak jarriko duena; udalari eskatzen diotena; beste diru-iturriak eta eskatuta duten dirulaguntzak). 2 puntu

Banaketatik kanpo geldituko dira, halaber, gutxienez 25 puntu lortzen ez duten eskaerak. Horretarako, dauden bi ataletako (entitatea eta proiektua) bakoitzean eskatzen diren puntu guztien erdia gutxienez izan beharko dute.

Deialdian parte hartzeko baldintzak betetzen dituen erakunde eskatzaile bakoitzarekin elkarriketa bat egitea erabaki dezake udalak, aurkeztutako proiektua defenda dezaten.



Dirulaguntzak banatzeko orduan, kontuan hartuko dira udalak gai honetarako onartutako aurrekontua, proiektu bakoitzak lortutako puntuazioa eta GKE horrek udalari eskatutako dirulaguntza.

Aurreikusitako aurrekontutik dirua soberan geratuko balitz, talde guztien artean banatuko litzateke, puntuaketaren arabera.

### **35. artikulua. Erabakia hartzeko prozedura**

Txosten teknikoa egin ondoren, Udaleko dagokion batzorde informatzaileak dirulaguntza emateko proposamena bidaliko dio Alkateari edo hark delegatutako organoari, erabakia har dezan.

Erabakia hartzeko bi hilabeteko epea izango du gehienez –eskaera dokumentazio guztiarekin aurkezten denetik kontatzen hasita–.

Epe hori igaro ondoren Udalak eskaeraren baten gainean berariazko erabakirik hartuko ez balu, ulertu ahal izango da ez dela eskaera hori onartu.

Erabakiaren proposamena formulatu aurretik, Udalak beharrezko deritzon informazio osagarri guztia eskatu ahal izango du dagokion departamentu arduradunak egindako errekerimenduaren bitartez.

### **36. artikulua. Erabakiaren edukia**

Erabakiak oinarri orokorretako 9. artikuluan jasotako edukia izango du.

### **37. artikulua. Onuradunen obligazioak**

Honakoak dira onuradunen betebeharrak, oinarri orokorretako 11. artikuluan jasotakoez gain:

- a) Beharrezkoak diren baimenak lortzea diruz lagundu beharreko jarduera garatzeko, eta baimenon xedapenak betetzea.
- b) Aurkezten den proiektua 2026. urtean bertan burutzea.

### **38. artikulua. Dirulaguntzaren justifikazioa**

1. Dirulaguntzaren justifikazioa 2027ko urtarrilaren 31 baino lehen egingo da.
2. Dirulaguntza justifikatzeko jarraian zehaztutako dokumentazioa aurkeztu beharko da. Inprimakiak behar bezala beteta eta sinatuta aurkeztu beharko dira.

#### Sentsibilizazioko proiektuak:

- a. Dirulaguntza ordaintzeko eskaera, F0098 (D20) inprimakia erabilita.
- b. Balantzea, F0098 (D22) inprimakia erabilita.

- c. Aurrekontuarekiko desbiderapen garrantzitsuak, F0098 (D23) inprimakia erabilita.
- d. Gastuen zerrenda (gastu totala, ez udalak emandako laguntzaren parekoa soilik) sailkatuta, F0098 (D24) inprimakia erabilita.
- e. Diru-sarrera guztien zerrenda sailkatua, F0098 (D25) inprimakia erabilita.
- f. Proiektua justifikatzeko memoria, F0098 (D28) inprimakia erabilita. Gehienez ere, 6 orrikoa izango da, A-4ko tamainan, orrialde batetik idatzita, Arial 11ko hizkiaz eta 1,5 puntuko lerroartearekin.
- g. Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarreraren edo dirulaguntzen xehetasun-zerrenda, haien zenbatekoa eta jatorria adierazita, eta agiriak erantsita. Bestelako dirulaguntzarik ez badute jaso, horrela adierazi beharko dute.
- h. Programatutako jarduerari buruzko dokumentazio grafikoa (kartelak, esku-programak, liburuxkak, banatutako idatzizko materiala, prentsa-oharrak, etab.)

Garapenerako proiektuak:

- a. Dirulaguntza ordaintzeko eskaera, F0098 (D20) inprimakia erabilita.
- b. Balantzea, F0098 (D22) inprimakia erabilita.
- c. Aurrekontuarekiko desbiderapen garrantzitsuak, F0098 (D23) inprimakia erabilita
- d. Gastuen zerrenda (gastu totala, ez udalak emandako laguntzaren parekoa soilik) sailkatuta, F0098 (D24) inprimakia erabilita.
- e. Diru-sarrera guztien zerrenda sailkatua, F0098 (D25) inprimakia erabilita.
- f. Proiektua justifikatzeko memoria, F0098 (D27) inprimakia erabilita. Gehienez ere, 6 orrikoa izango da, A-4ko tamainan, orrialde batetik idatzita, Arial 11ko hizkiaz eta 1,5 puntuko lerroartearekin.
- g. Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarreraren edo dirulaguntzen xehetasun-zerrenda, haien zenbatekoa eta jatorria adierazita, eta agiriak erantsita. Bestelako dirulaguntzarik ez badute jaso, horrela adierazi beharko dute.
- h. Programa burutzeaz arduratuko den pertsonari egindako diru-transferentziaren ziurtagiria.

Halaber, Udalak ofizios egiaztatuko du Bergarako Udalarekiko ordainketak egunean dituela eta jarduera burutu ahal izateko Bergarako udalarekiko betebeharrak guztiak betetzen dituela.

Baldintzak edo betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko, Bergarako Udalak honako kontsulta hauek egingo dizkie beste administrazio batzuei:

- Foru Ogasunak:
- Zerga-betebeharrak egunean izatea.



- Gizarte Segurantzaren:

- Gizarte Segurantzako betebeharretan egunean egotea.

Interesdunak era arrazoituan bere datuak kontsultatzearen aurka egiten badu, dirulaguntza izapidetu ahal izateko behar den dokumentazio guztia aurkeztu beharko du. Hala badagokio, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- Dagokion Foru Ogasunaren ziurtagiria, zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duena.

- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duten Gizarte Segurantzaren ziurtagiriak.

**OHARRA INPRIMAKIEN INGURUAN:** Inprimakiak interesatuen eskura egongo dira udaleko web-orrian tramiteen atalean:

<https://www.bergara.eus/tramiteak>

## 2. KAPITULUA

### ***Gizarte-zerbitzuen arloan diharduten elkarteei dirulaguntzak emateko arau espezifikoak***

#### ***39. artikulua. Xedea***

Oinarri espezifiko hauen xedea honako hau da, kontuan hartuta oinarri orokorrek ere diotena: Bergarako udalerrian osasun eta gizarte zerbitzuen arloan diharduten irabazi asmorik gabeko elkarteei 2026an programak garatzeko dirulaguntzak emateko deialdia arautzea.

Programak nagusiki, honako taldeei bideratutakoak izango dira: bazterketa-arazoak dituztenei, desgaitasunen bat dutenei, hirugarren adinekoei, eta gizarte zerbitzuen beharra duten beste edozein talderi.

Honen guztiaren helburua da elkarteak sustatzea, herritarren arteko elkartasuna indartzea eta haiek antolatutako ekintzetan parte-hartzea bultzatzea.

Ekintza edo programa horiek 2026. urtean egin beharko dira.

Dirulaguntza hauek 38/2003 Lege Orokorraren eta lege hori garatzen duen gainontzeko araudiaren menpe daude.



#### **40. artikulua. Diru-izendapena**

Dirulaguntzen deialdi honetarako izendatu den kopurua 35.660,00 eurokoa da, eta finantzatuko da Gizarte Zerbitzuak GKE eta Elkarteei dirulaguntzak emateko duen partidatik: 1 3500.481.230.20.01 2026 (563)

#### **41. artikulua. Departamentu arduraduna**

Gizarte Zerbitzuak

#### **42. artikulua. Onuradunak**

Dirulaguntza hauek jaso ahal izango dute legez erataka dauden eta irabazi asmorik gabekoak diren osasun eta gizarte zerbitzuen arloan diharduten elkarteek, betiere beraien ekintzek deialdi honen xedearekin bat egiten badute. Aldi berean, Euskal Autonomi Erkidegoan edo Nafarroan erroldatuta egon behar dira, eta egoitza soziala, ordezkari bat edo administrazio-egitura iraunkor bat Bergaran edo Debagoienean eduki behar dute.

Deialdi honetatik kanpo geratuko dira:

- a) Beren izaera eta helburuak Osasunaren eta Gizarte Zerbitzuen Sailaren ardurapekoak diren eremuekin lotura zuzenik ez dutenak.
- b) Beren izaera eta helburuagatik udalaren beste dirulaguntza programa batean sar daitezkeen proiektuak edo ekintzak.
- c) Estatu, Administrazio Autonomo, Foru Aldundi eta Aurrezki Entitatereen baten menpeko erakundeak.

Oinarri orokorretako 3 artikuluan jasotako baldintzez gain honako baldintza hauek ere bete behar dituzte:

- a) Betebehar fiskaletan eta Gizarte Segurantzakoetan egunean egotea; baita Bergarako Udalarekin ere.
- b) Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. ataletan adierazitakoaren arabera, dirulaguntza jaso ezin izateko kausetako batean ez egotea.

Ez dira Bergarako Udalaren dirulaguntzen onuradun izango sexuaren aldetik edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 3-1 artikuluan jasotako diskriminazio anizkoitzeko faktoreen aldetik diskriminatzaileak diren jarduerak egiten dituzten pertsona fisiko edo juridikoak. Era berean, ez dira onuradun izango sexu-diskriminazioagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik administrazio-zehapena edo zehapen penala jaso dutenak ere, dagokion zehapenean ezarritako aldian.

Halaber, ezin izango dira onuradun izan honako egoeratakoren batean aurkitzen diren pertsona fisiko edo juridikoak:



a) Epai irmoz zigorturik daudenak dirulaguntzak jasotzeko eskubiderik ez izatera, 38/2003 Legearen, Tratu Berdintasunari eta Diskriminaziorik Ezari buruzko uztailaren 12ko 15/2022 Legearen, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauaren edo aplikagarri den beste zeinahi arauen arabera.

b) Indarreko legeriak botere publikoei dirulaguntzak ematea galarazten dien edozein inguruabarren pean daudenak.

#### **43. artikulua. Eskabideak aurkezteko modua**

Interesatuak laguntza-eskaera Udaleko Erregistro Elektronikoko Orokorrean aurkeztu beharko du, udalak horretarako propio sortutako eskaera-inprimakia(k) erabilita. Ez da beste dokumenturik onartuko.

#### **44. artikulua. Eskabideak aurkezteko epea**

Dirulaguntza hau eskatzeko epea 30 lanegunekoa da deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

#### **45. artikulua. Eskaera egiteko aurkeztu beharreko agiriak**

Dirulaguntzak eskatzeko honako dokumentuak behar bezala beteta eta sinatuta aurkeztu beharko dituzte:

- Dirulaguntza-eskaera, F0098A (D01) inprimakia erabilita
- Dirulaguntza-eskaera - Proiektuaren memoria, F0098 (D12) inprimakia erabilita
- Dirulaguntza-eskaera - Aurrekontua, F0098 (D14) inprimakia erabilita
- Dirulaguntza-eskaera - Elkartearen datuak, F0098 (D17) inprimakia erabilita

Eskaerak artikulua honetan aipatutako inprimakiei jarraituz ez aurkezteak laguntza ez onartzea eragingo du. Halaber, nahiz eta inprimakiak erabili, atal guztiak ez badira betetzen eta bertan proiektuak baloratzeko informazioa ez bada azaltzen, puntu horiek baloratu gabe geratuko dira.

#### **46. artikulua. Eskabideak baloratzeko irizpideak**

Udalak elkarte bakoitzari emango dion dirulaguntza zehazteko, honako irizpideak hartuko dira kontuan:

1.- Elkarte eskatzailea, 15 puntu:

- Elkartearen ibilbidea, esperientzia: azken hiru urteetan egindako esku-hartzeak (zer egin duten, non, eta zein emaitza lortu duten). 2 puntu

- Elkarre eskatzaileak Bergaran benetako presentzia duela erakusten du kide-kopuruarekin, publikora eskura dagoen ordezkarezekin, pertsonal teknikoarekin, Bergaran gauzatutako ekintzekin eta Bergaran beste elkarteekin edo herriko ekintzetan elkarlanean. 6 puntu
- Erakundeak duen misio, balore eta helburuak bat datoz osasun eta gizarte zerbitzuen esku-hartze eremuarekin eta osatu egiten du aipatutako zerbitzuen funtzioak. 2 puntu
- Elkarreak jarduera xedetzat duen esparruan, eta konkretuki Bergaran, duen eragina, pertsona onuradunak (kopurua eta ezaugarriak). 5 puntu.

2.- Proiektua, 35 puntu:

- Proiektua elkarteko kideei bideratuta egotea: 5 puntu.
- Proiektua herritar orokorreki bideratuta egotea: 5 puntu.
- Proiektuak osatzen ditu hauei bideratutako esku-hartzeak: bazterketa-arazoak dituztenei, desgaitasunen bat dutenei, hirugarren adinekoei eta Osasun eta Gizarte Zerbitzuen alorreko beharra duten beste edozein talderi. 10 puntu.
- Proiektuaren helburuak, ekintzak, zuzenduta doan publikoa, iraungo duen denbora, zehatz-mehatz azaltzen dira, eta koherentzia dago gaiaren, publiko hartzailearen, planteatutako helburuen, proposatutako aktibitateen eta bilatutako emaitza eta ondorioen artean. 8 puntu.
- Edukiak, ekintzak eta bestelakoak zabaltzeko era publiko hartzaileari egokitzen zaio. 4 puntu.
- Aurrekontua planteatutako proiektuari egokitzen zaio. 3 puntu.

Banaketatik kanpo geldituko dira, halaber, gutxienez 25 puntu lortzen ez duten eskaerak. Horretarako, dauden bi ataletako (elkarre eta proiektua) bakoitzean eskatzen diren puntu guztien erdia gutxienez izan beharko dute

Puntuaren balioa honela kalkulatu da:

Udalak aurrekontuetan onartu duen diru-kopurua hartu eta zatitu dirulaguntza eskatu duten elkarre guztien artean lortutako guztizko puntuazioaz (goiko baremoaren gehienezko puntuazio totalarekin).

Gainera, diruz lagunduko den jarduera-proiektua garatzeko, udalak oinarri hauen arabera egokitutako kopurua bakarrik ordainduko du.

Aurreikusitako aurrekontutik dirua soberan geratuko balitz, talde guztien artean banatuko litzateke, puntuaketaren arabera.

#### **47. artikulua. Erabakia hartzeko prozedura**



Txosten teknikoa egin ondoren, Udaleko dagokion batzorde informatzaileak dirulaguntza emateko proposamena bidaliko dio Alkateari edo hark delegatutako organoari, erabakia har dezan.

Erabakia hartzeko bi hilabeteko epea izango du gehienez –eskaera dokumentazio guztiarekin aurkezten denetik kontatzen hasita–.

Epe hori igaro ondoren Udalak eskaeraren baten gainean berriazko erabakirik hartuko ez balu, ulertu ahal izango da ez dela eskaera hori onartu.

Erabakiaren proposamena formulatu aurretik, Udalak beharrezko deritzon informazio osagarri guztia eskatu ahal izango du dagokion departamentu arduradunak egindako errekerimenduaren bitartez.

#### **48. artikulua. Erabakiaren edukia**

Erabakiak oinarri orokorretako 9. artikuluan jasotako edukia izango du.

#### **49. artikulua. Onuradunen obligazioak**

Honakoak dira onuradunen betebeharrak, oinarri orokorretako 11. artikuluan jasotakoez gain:

- a) Beharrezkoak diren baimenak lortzea diruz lagundu beharreko jarduera garatzeko, eta baimenon xedapenak betetzea.
- b) Aurkezten den proiektua 2026. urtean bertan burutzea.

#### **50. artikulua. Dirulaguntzaren justifikazioa**

1. Dirulaguntzaren justifikazioa 2027ko urtarrilaren 31 baino lehen egingo da.
2. Dirulaguntza justifikatzeko jarraian zehaztutako dokumentazioa aurkeztu beharko da. Inprimakiak behar bezala beteta eta sinatuta aurkeztu beharko dira.
  - a.- Dirulaguntza ordaintzeko eskaera, F0098 (D20) inprimakia erabilita
  - b.- Balantzea, F0098 (D22) inprimakia erabilita
  - c.- Aurrekontuarekiko desbiderapen garrantzitsuak, F0098 (D23) inprimakia erabilita
  - d.- Gastuen zerrenda (gastu totala, ez udalak emandako laguntzaren parekoa soilik) sailkatuta, F0098 (D24) inprimakia erabilita
  - e.- Diru-sarrera guztien zerrenda sailkatua, F0098 (D25) inprimakia erabilita
  - f.- Proiektua justifikatzeko memoria, F0098 (D28) inprimakia erabilita. Gehienez ere, 6 orrikoa izango da, A-4ko tamainan, orrialde batetik idatzita, Arial 11ko hizkiaz eta 1,5 puntuko lerroartearekin.



g.- Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarreraren edo dirulaguntzen xehetasun-zerrenda, haien zenbatekoa eta jatorria adierazita, eta agiriak erantsita. Bestelako dirulaguntzarik ez badute jaso, horrela adierazi beharko dute.

h.- Programatutako jardueri buruzko dokumentazio grafikoa (kartelak, esku-programak, liburuxkak, banatutako idatzizko materiala, prentsa-oharrak, etab.).

Halaber, Udalak ofizioz egiaztatuko du Bergarako Udalarekiko ordainketak egunean dituela eta jarduera burutu ahal izateko Bergarako udalarekiko betebeharrak guztiak betetzen dituela.

Baldintzak edo betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko, Bergarako Udalak honako kontsulta hauek egingo dizkie beste administrazio batzuei:

- Foru Ogasunak:
  - Zerga-betebeharrak egunean izatea.
- Gizarte Segurantzak:
  - Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean egotea.

Interesdunak era arrazoituan bere datuak kontsultatzearen aurka egiten badu, dirulaguntza izapidetu ahal izateko behar den dokumentazio guztia aurkeztu beharko du. Hala badagokio, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- Dagokion Foru Ogasunaren ziurtagiria, zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duena.
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duten Gizarte Segurantzaren ziurtagiriak.

**OHARRA INPRIMAKIEN INGURUAN:** Inprimakiak interesatuen eskura egongo dira udaleko web-orrian tramitean atalean:

<https://www.bergara.eus/tramiteak>

### 3. KAPITULUA

#### ***Kultura elkarteei urteko egitarauak garatzeko dirulaguntzak emateko oinarri espezifikoak***

##### ***51. artikulua. Xedea***

Oinarri espezifiko hauen xedea hau da, kontuan hartuta oinarri orokorrek ere diotena, 2026. urtean urteko programak finantzatzeko Bergarako irabazi asmorik gabeko kultur elkarteei dirulaguntzak emateko deialdia arautzea.



### **52. artikulua. Diru-izendapena.**

Programa honen xede diren dirulaguntzetara bideratutako diru-kopurua 49.337 eurokoa da eta finantzatuko da Kulturako dirulaguntzak kontu-sailaren kontura (3310.482.334.20.01. 2026 - B.K. 442).

### **53. artikulua. Departamentu arduraduna**

Kultura.

### **54. artikulua. Onuradunak**

Dirulaguntza hauen onuradun izan daitezke oinarri hauetan zehaztutako alorrean kultur ekintzak burutzen dituzten irabazi asmorik gabeko elkarteak, betiere egoitza eta jarduteko esparrua Bergaran izanik.

Elkarteek Autonomia Erkidegoko elkarten erregistroan edo bestelako erregistro publikoetan erregistratuta egon beharko dute, eta identifikazio fiskaleko kodea eduki beharko dute.

Deialdi honetatik kanpo geratuko dira ondorengoak:

- a) Beren izaera eta helburuak Kultura Sailaren ardurapekoak diren eremuekin lotura zuzenik ez dutenak.
- b) Beren izaera eta helburuagatik udalaren beste dirulaguntza programa batean sar daitezkeen proiektuak edo ekintzak.
- c) Auzoko kultur elkarteek auzoari zuzendutako kultur ekintzak.

Oinarri orokorretako 3. artikuluan jasotako baldintzez gain honako baldintza hauek ere bete beharko dituzte:

- a) Betebehar fiskaletan eta Gizarte Segurantzakoetan egunean egotea; baita Bergarako Udalarekin ere.
- b) Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. ataletan adierazitakoaren arabera, dirulaguntza jaso ezin izateko kausetako batean ez egotea.

Ez dira Bergarako Udalaren dirulaguntzen onuradun izango sexuaren aldetik edo 1/2023 Legegintzako Dekretuak (martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistarik Gabe Bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena) 3-1 artikuluan jasotako diskriminazio anizkoitzeko faktoreen aldetik diskriminatzaileak diren jarduerak egiten dituzten pertsona fisiko edo juridikoak. Era berean, ez dira onuradun izango sexu-diskriminazioagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik administrazio-zehapena edo zehapen penala jaso dutenak ere, dagokion zehapenean ezarritako aldian.

Halaber, ezin izango dira onuradun izan honako egoeratakoren batean aurkitzen diren pertsona fisiko edo juridikoak:

- a) Epai irmoz zigorturik daudenak dirulaguntzak jasotzeko eskubiderik ez izatera, 38/2003 Legearen, Tratu Berdintasunari eta Diskriminaziorik Ezari buruzko uztailaren 12ko 15/2022 Legearen, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauaren edo aplikagarri den beste zeinahi arauen arabera.



b) Indarreko legeriak botere publikoei dirulaguntzak ematea galarazten dien edozein inguruabarren pean daudenak.

#### **55. artikulua. Eskabideak aurkezteko modua**

Interesatuak laguntza-eskaera Udaleko Erregistro Elektronikoko Orokorrean aurkeztu beharko du, udalak horretarako propio sortutako eskaera-inprimakia(k) erabilita eta oinarri hauetan zehaztutako dokumentazioa gehituta. Ez da beste dokumenturik onartuko.

#### **56. artikulua. Eskabideak aurkezteko epea**

Dirulaguntza hau eskatzeko epea 30 lanegunekoa da, deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

#### **57. artikulua. Eskaera egiteko aurkeztu beharreko agiriak**

Dirulaguntzak eskatzeko honako dokumentuak behar bezala beteta eta sinatuta aurkeztu beharko dituzte:

- Dirulaguntza-eskaera, F0098A (D01) inprimakia erabilita
- Dirulaguntza-eskaera - Entitatearen datuak, F0098 (D05) inprimakia erabilita
- Dirulaguntza-eskaera - Entitatearen jardueren programa, F0098 (D06) inprimakia erabilita
- Dirulaguntza-eskaera - Aurrekontua, F0098 (D07) inprimakia erabilita

#### **58. artikulua. Eskabideak baloratzeko irizpideak**

Dirulaguntza-eskaerak ondorengo irizpideak kontuan hartuta baloratuko dira:

a) Proposatutako egitarauaren edo proiektuaren ezaugarriak: Gehienez 50 puntu, hauek kontuan hartuta:

a.1. Garatzen den egitarauak kultura arloari egiten dion ekarpena. Gehienez 10 puntu, eta honako hauek kontuan hartuta:

- Sormena, originaltasuna, berritasuna

a.2. Garatuko den egitaraua herritar guztiei zuzentzea, giza proiektzioa izatea, edo beste entitate, hiritar eta kultur eragile batzuen inplikazio-maila. Gehienez 10 puntu, eta honako hauek kontuan hartuta:

- Balore onuragarriak sustatzea; belaunaldien artekotasuna; elkartasuna, diziplinartekotasuna; aukera berdintasuna
- Parte-hartzaileen kopurua
- Aktibitate irekia izatea
- Parte hartzea sustatzea

a.3. Elkarte edo taldeek proposatzen dituzten proiektu edo jarduerak herriko beste talde edo elkarte batzuekin elkarlanean burutuz gero, ekintza bateratu

horiek balorazio gehigarri eta positiboa izango dute, sozializazio ikuspegitik. Gehienez 5 puntu.

a.4. Proposatutako proiektu edo jardueretan herriko norbanakoak parte hartzea baloratuko da. Gehienez 5 puntu.

a.5. Proposatutako egitarauaren ibilbidea eta errotzea edo finkatzea. Gehienez 10 puntu.

a.6. Garatzen den egitarauak emakume eta gizonen berdintasuna sustatzeko neurriak aurreikustea (emakumeen parte-hartzea sustatzeko, sexuaren araberako estereotipoak gainditzeko, bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna errazteko, etab.). Gehienez 10 puntu.

b) Entitate eskatzailearen ezaugarriak: Gehienez 30 puntu, alderdi hauek kontuan hartuta:

b.1. Entitate eskatzailearen jarraitasuna eta egonkortasuna. Gehienez 5 puntu.

b.2. Udalaren ekimenetan parte-hartzaile izatea. Gehienez 5 puntu.

b.3. Entitate eskatzailearen eta bere giza taldeen dedikazioa. Gehienez 5 puntu.

b.4. Emakumeen presentzia eta parte-hartzea elkartearen eremu guztietan (zuzendaritzan, bazkideen artean, erabiltzaileen artean, etab.). Gehienez 5 puntu.

b.5. Genero-ikuspegia txertatzea: Emakumeen ekintzailetasuna eta partaidetza indartu. Garatzen den egitarauak emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna helburu izatea eta berdintasuna sustatzeko neurriak aurreikustea (emakumeen parte-hartzea sustatzeko, sexuaren araberako estereotipoak gainditzeko, bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna errazteko, etab.). Gehienez 5 puntu.

b.6. Elkartearen arteko lankidetzak eta elkarlana bultzatzea eta lantzea. Gehienez 5 puntu.

c) Entitatearen finantza-baliabideak; bere baliabideen, beste dirulaguntzen eta aurkeztutako gastuen aurrekontuaren arteko proportzionaltasuna. Elkarte edo taldeei dagokienez, autofinantzaketarako ekintzak eta ahaleginak egiten dituztenak positiboki baloratuko dira, bereziki ekintza horiek herrirako ekarpen edo ekimen berri bat eragiten dutenean. Modu positiboan baloratuko da, elkartearen inplikazioa baitakar. Gehienez 20 puntu.

C.1. Bazkide-kopurua, eta bazkide bakoitzeko diru-ekarpena.

C.1.1. Bazkide kopuruaren araberako puntuazioa. Gehienez 5 puntu. Honela banatuta:

20 bazkide baino gutxiago, puntu 1

20 eta 40 bazkide artean, 3 puntu

40 bazkidetik gora, 5 puntu

C.1.2. Bazkide bakoitzeko kuota. Gehienez 5 puntu, honela banatuta:

Hilean 3 euro baino gutxiago: puntu 1

Hilean 3 eta 5 euro artean: 3 puntu

Hilean 5 euro baino gehiago: 5 puntu.



C.2. Auto finantzaketa gaitasuna: Aribideko urterako aurreikusten den ekonomia-memorian kontuan hartuko da diru-balantzeko diru-sarrerak ea datozen publikoak ez diren iturrietatik edo bazkideen kuotetatik. Horretarako, sarrera horiek diru-sarrera osoarekiko suposatzen duten portzentajearen arabera puntuazio bat aplikatuko da. Gehienez 10 puntu.

Kultur zerbitzuak arestian aipatutako balorazio-irizpideen eta horien ponderazioaren arabera puntuak emango dizkio eskatzaile bakoitzari. Eskatutako dirulaguntza puntuazio horren arabera emango zaio; hau da, A eskatzaileak 90 puntu lortu baditu eta 1.000 euroko dirulaguntza-eskaera egin badu, 900 euroko dirulaguntza jasoko du.

Irizpide hori aplikatuta, onartutako eskaera guztiei aurre egiteko behar besteko diru-izendapenik ez balego, elkarte guztiei proportzio berean gutxituko zaie dirulaguntza. Alderantziz, aurreko pasartean jaso den bezala dirua banatuta, soberan geldituko balitz diruren bat, eskatzaile guztien artean, proportzio berean, banatzea erabaki dezake Udalak.

#### **59. artikulua. Diruz lagunduko diren gastu kontzeptuak**

Diruz lagunduko diren gastuak elkartearen urteko gastuak izango dira, honako muga hauekin:

- Elkarteko kideentzat egiten diren ekintza gastronomikoak (bazkariak, hamaiketakoak) dieta moduan onartuko dira. Honen helburua kideen parte hartzea sustatu eta elkartearen sendotzea izango da. Gastutzat onartuko da gehienez ere ekintza bat eta gehieneko kopurua 15 euro pertsona bakoitzeko.
- Ekintza kulturalen partaideentzat afari edo bazkariak justifikatzerakoan: 15 euro pertsona bakoitzeko eta gehienez ere ekintza bat.
- Ostalaritzako gastuetan alkoholdun edaririk ez da onartuko.

#### **60. artikulua. Erabakia hartzeko prozedura**

Txosten teknikoaren ondoren, Udaleko dagokion batzorde informatzaileak dirulaguntza emateko proposamena bidaliko dio Alkateari edo hark delegatutako organoari, erabakia har dezan.

Erabakia hartzeko bi hilabeteko epea izango du gehienez –eskaera dokumentazio guztiarekin aurkeztu denetik kontatzen hasita–.

Epe hori igaro ondoren Udalak eskaeraren baten gainean berriazko erabakirik hartuko ez balu, ulertu ahal izango da ez dela eskaera hori onartu.

Erabakiaren proposamena formulatu aurretik, Udalak beharrezko deritzon informazio osagarri guztia eskatu ahal izango du dagokion departamentu arduradunak egindako errekerimenduaren bitartez.

#### **61. artikulua. Erabakiaren edukia**



Erabakiak oinarri orokorretako 9. artikuluan jasotako edukia izango du.

### **62. artikulua. Onuradunen obligazioak**

Oinarri orokorretako 11. artikuluan jasotako betebeharrak bete beharko ditu.

### **63. artikulua. Dirulaguntzaren justifikazioa**

1.- Dirulaguntzaren justifikazioa 2027ko urtarrilaren 31 baino lehen egingo da.

2.- Dirulaguntza justifikatzeko eta gero dirulaguntza ordaintzeko aurkeztu beharreko agiriak ondorengoak dira eta behar bezala beteta eta sinatuta aurkeztu beharko dira:

- a) Dirulaguntza ordaintzeko eskaera, F0098 (D20) inprimakia erabilia.
- b) Balantzea, F0098 (D22) inprimakia erabilia.
- c) Aurrekontuarekiko desbideraketa garrantzitsuenak, F0098 (D23) inprimakia erabilia.
- d) Gastuen zerrenda (gastu totala, ez udalak emandako laguntzaren parekoa soilik) sailkatua, F0098K (D24) inprimakia erabilia.
- e) Diru-sarrera guztien zerrenda sailkatua, F0098 (D25) inprimakia erabilia.
- f) Jarduerak justifikatzeko memoria, F0098K (D26) inprimakia erabilia
- g) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarreraren edo dirulaguntzen xehetasun-zerrenda, haien zenbatekoa eta jatorria adierazita, eta agiriak erantsita. Bestelako dirulaguntzarik ez badute jaso, horrela adierazi beharko dute.
- h) Programatutako jarduerari buruzko dokumentazio grafikoa (kartelak, esku-programak, liburuxkak, banatutako idatzizko materiala, prentsa-oharrak, etab.).
- j) Gastuen zerrendan sartutako gastuen ordainketen frogagiriaren kopia.**

Halaber, Udalak ofizios egiaztatuko du Bergarako Udalarekiko ordainketak egunean dituela eta jarduera burutu ahal izateko Bergarako udalarekiko betebeharrak guztiak betetzen dituela.

Baldintzak edo betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko, Bergarako Udalak honako kontsulta hauek egingo dizkie beste administrazio batzuei:

- Foru Ogasunak:
  - Zerga-betebeharrak egunean izatea.
- Gizarte Segurantzak:
  - Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean egotea.

Interesdunak era arrazoituan bere datuak kontsultatzearen aurka egiten badu, dirulaguntza izapidetu ahal izateko behar den dokumentazio guztia aurkeztu beharko du. Hala badagokio, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:



- Dagokion Foru Ogasunaren ziurtagiria, zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duena.
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duten Gizarte Segurantzaren ziurtagiriak.

**OHARRA INPRIMAKIEN INGURUAN:** Inprimakiak interesatuen eskura egongo dira udaleko web-orrian, tramiteen atalean:

<https://www.bergara.eus/tramiteak>

## 4. KAPITULUA

### ***Bergarako kirol entitateei ohiko eta ezohiko jarduerak finantzatzeko laguntza edo dirulaguntza programa***

#### ***64. artikulua. Xedea***

Dirulaguntzen helburua da Eskola Kirolaren alorrean, Guztientzako Kirolaren alorrean eta Kirol Federatuaren alorrean kirol jarduerak sustatzen edota antolatzen dituzten kirol entitateak diruz laguntzea.

Denboraldiak bi urte hartzen dituen kasuetan, diruz lagunduko direnak urte horretako denboraldi zati handiena eta aurreko urteko txikiena izango dira. Horrela ez den kasuetan, urte naturala hartuko da denboraldi bezala.

#### ***65. artikulua. Diru-izendapena***

Dirulaguntzen deialdi honetarako izendatu den kopurua 89.500 eurokoa da, eta finantzatuko da Transf. kirol taldeak partidatik: 1 3320.482.341.00.01 2026 (B.K. 396)

#### ***66. artikulua. Departamentu arduraduna***

Kirol Departamentua

<http://www.bergarakirola.eus/>

#### ***67. artikulua. Onuradunak***

Dirulaguntza hauen onuradunak izan daitezke Bergaran –edo beste herriren batean (betiere Bergaran kirol modalitate horretarako kirol entitaterik ez badago)– egoitza duten eta bergararrekin diharduten irabazi asmorik gabeko kirol entitateak.

Oinarri orokorretako 3 artikuluan jasotako baldintzez gain honako baldintza hauek ere bete beharko dituzte:

a) Betebehar fiskaletan eta Gizarte Segurantzakoetan egunean egotea; baita Bergarako Udalarekin ere.



b) Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. ataletan adierazitakoaren arabera, dirulaguntza jaso ezin izateko kausetako batean ez egotea.

c) Gizarte Zerbitzuetako aldeko irizpena duten eta egoera zaurgarrian dauden pertsonentzako plazak bermatu beharko dituzte.

Ez dira Bergarako Udalaren dirulaguntzen onuradun izango sexuaren aldetik edo 1/2023 Legegintzako Dekretuak (martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistatik Gabe Bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena) 3-1 artikuluan jasotako diskriminazio anizkoitzeko faktoreen aldetik diskriminatzaileak diren jarduerak egiten dituzten pertsona fisiko edo juridikoak. Era berean, ez dira onuradun izango sexu-diskriminazioagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik administrazio-zehapena edo zehapen penala jaso dutenak ere, dagokion zehapenean ezarritako aldian.

Halaber, ezin izango dira onuradun izan honako egoeratakoren batean aurkitzen diren pertsona fisiko edo juridikoek:

a) Epai irmoz zigorturik daudenak dirulaguntzak jasotzeko eskubiderik ez izatera, 38/2003 Legearen, Tratu Berdintasunari eta Diskriminaziorik Ezari buruzko uztailaren 12ko 15/2022 Legearen, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauaren edo aplikagarri den beste zeinahi arauaren arabera.

b) Indarreko legeriak botere publikoei dirulaguntzak ematea galarazten dien edozein inguruabarren pean daudenak.

### **68. artikulua. Eskabideak aurkezteko modua**

Interesatuak laguntza-eskaera Udaleko Erregistro Elektronikoko Orokorrean aurkeztu beharko du, udalak horretarako propio sortutako eskaera-inprimakia(k) erabilita eta oinarri hauetan zehaztutako dokumentazioa gehituta. Ez da beste dokumenturik onartuko.

### **69. artikulua. Eskabideak aurkezteko epea**

Dirulaguntza hau eskatzeko epea 30 lanegunekoa da deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

### **70. artikulua. Eskaera egiteko aurkeztu beharreko agiriak**

Dirulaguntzak eskatzeko honako dokumentuak behar bezala beteta eta sinatuta aurkeztu beharko dituzte:

- Dirulaguntza-eskaera, F0098A (D01) inprimakia erabilita.
- Dirulaguntza-eskaera - Entitatearen datuak, F0098 (D05) inprimakia erabilita
- Dirulaguntza-eskaera - Entitatearen jardueren programa, F0098 (D06) inprimakia erabilita
- Dirulaguntza-eskaera - Aurrekontua, F0098 (D07) inprimakia erabilita
- Dirulaguntza-eskaera - Kirol taldeen ezaugarriak eta izaera bereziko jarduerak, F0098 (D11) inprimakia erabilita.

- Dirulaguntza-eskaera – Kirol entitateak izaera berezi edo/eta noizean behingo kirol jarduerak antolatzeko. F0098 (D12)
- Dirulaguntza-eskaera - Kirol eta bulego materiala erosteko edo elkarteen lokaletan hobekuntzak egiteko dirulaguntza, F0098 (D13) inprimakia erabilia.
  
- Federazioak egindako agiria, federatutako kirolarien eta teknikarien kopurua eta maila zehaztuz.
  
- Denboraldiko kirolean, 2025-2026 denboraldiko jardueraren **kirol-memoria**. Urteko denboraldia duten kirolean, berriz, 2026eko kirol memoria. Memoria hauek, gutxienez, atal hauexek bilduko dituzte:
  - a. **Urte edo denboraldi horretan federazioak egindako kirolari-zerrenda ofiziala.** Horretarako entitateak atxikita dagoen federazioari entitateko kirolarien zerrenda zenbakitu ofiziala eskatu eta udalari aurkeztu beharko dio. Zerrenda horretan, gutxienez, kirolari kopurua, kategoria, adina, sexua eta kirolaria bizi den udalerria agertu beharko dira.  
**Udalak lagatuko kirol instalazioak erabiltzen dituzten kirol elkarteetan, kirolari federatuei dagokienez, kontabilizatuko dira federazioko zerrendan eta, halaber, elkarteak aurkeztutako kirolari federatuen zerrendan agertzen direnak; hau da, soilik kontabilizatuko dira zerrenda bietan daudenak.**  
**Federazioak egindako teknikarien zerrenda ofiziala,** federazioan indarrean dagoen lizentzia dutenena, haien titulazioarekin. Horrekin batera, entrenatzaileen euskara-gaitasuna ziurtatuko duten egiaztagiriak aurkeztuko dira.
  - b. Entitateko **bazkide kopurua** eta entitateari hileroko edo urtero ordaintzen dioten **kuotaren zenbatekoa**.
  - c. Klub edota elkartearen berdintasun plana, besteak beste taldeko zuzendaritza organoetan eta kirolari gisa emakumeen partaidetza sustatzeko.

Aukeran, udalari laguntzeko asmotan, kirol entitateak lagungarritzat jo ditzakeen beste edozein agiri.

## **71. artikulua. Eskabideak baloratzeko irizpideak**

### 71.1 EGITURA

Honako hauek dira eskaerak baloratzeko irizpideak eta puntuazioak:

1. Federazioetako kirol-lizentziak. Ondoren jasotzen den bezala baloratuko dira:
  - a. 18 urte arteko kirol lizentzia federatu bakoitzeko puntu 1.
  - b. 18 urtetik gorako (berau barne) eta aisialdiko kirol lizentzia ez den federatu bakoitzeko puntu 1.
  - c. 18 urtetik gorako (berau barne) eta aisialdiko kiroleko lizentzia federatu bakoitzeko, 0,25 puntu. (Araudi honen aplikaziorako, aisialdiko kirolak

izango dira ehiza-arrantza, zikloturismoa, mendizaletasuna, urpekaritza, eta Kirol Batzordeak hala adierazi ditzakeen kirol modalitateak).

- d. Goiko puntuazio-sistemei honako zuzenketa-koefizienteak aplikatuko zaizkie:
- Emakumezko lizentzia federatu bakoitzari balio bikoitza emango zaio. Hau ez da aisialdiko kiroltako lizentzietarako baliagarri izango.
  - Eusko Jaurlaritzako Euskal Kirolaren planean dauden herri kirol, euskal pilota edota arrauneko lizentzia federatu bakoitzari balio bikoitza emango zaio.
  - Euskadiko Kirol Egokituko Federazioak kirol egokituko jarduera bezala kontsideratu eta onartua duen kirol jarduera bakoitzeko lizentzia federatu bakoitzari balio bikoitza emango zaio.
- e. Elkartearen kirolari izateko kuotan tarifa soziala aplikatzen zaion kirolari bakoitzeko, 5 puntu.
- f. Kirol entitatearen Eskola Kirol lizentziak lizentzia federatuak balira bezala puntuatuko dira.

Guztira, gehienez, 450 puntu lortu ahal izango dira.

2. Eusko Jaurlaritzako organo eskudunak, Kiroltako Kontseilu Gorenak (*Consejo Superior de Deportes*) edo dagokion federazioak emandako eta indarrean dagoen lizentzia duen entrenatzaile-maila bakoitzeko azpian zehaztutako puntuak eskuratu ahal dira eta guztira, gehienez, 150 puntu:
- a. Oinarrizko mailako kirol teknikariaren titulua, edo bateragarri den beste titulu federatu ez ofiziala: 2 puntu titulu bakoitzeko. Atal honetan emakumezko bakoitzari balio bikoitza emango zaio
  - b. Erdi mailako kirol teknikariaren titulua, edo bateragarri den beste titulu federatu ez ofiziala: 5 puntu titulu bakoitzeko. Atal honetan emakumezko bakoitzari balio bikoitza emango zaio
  - c. Lehen Hezkuntzako Gradua (GH aipamena), GIKAI (Gizarte eta Kirol Animazioaren Irakaskuntza), egokitzapen fisikoa goi mailako heziketa zikloen titulua, edo bateragarri den beste titulu federatu ez ofiziala: 7 puntu titulu bakoitzeko. Atal honetan emakumezko bakoitzari balio bikoitza emango zaio
  - d. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan lizentziatu edota gradu bakoitzeko, 10 puntu titulu bakoitzeko. Atal honetan emakumezko bakoitzari balio bikoitza emango zaio
  - e. Entrenatzaile, monitore edo teknikaria kontratatu bakoitzeko, Atal honetan emakumezko bakoitzari balio bikoitza emango zaio
    - e.1.- 0-10 ordu astean, 40 puntu
    - e.2.- 11-20 ordu astean, 60 puntu
    - e.3.- 21 ordu baino gehiago astean, 80 puntu
3. Bazkide-kopurua, eta bazkide bakoitzeko diru-ekarpena.

- a. Bazkide kopuruaren arabera puntuazioa:
  - 50 bazkide baino gutxiago, 1 puntu.
  - 50 eta 99 bazkide artean, 3 puntu.
  - 100 eta 249 artean, 6 puntu.
  - 250 baino gehiago, 10 puntu.
- b. Bazkide bakoitzeko kuota:
  - Hilean 6 euro baino gutxiago, 5 puntu.
  - Hilean 7 eta 12 euro artean, 10 puntu.
  - Hilean 12 euro baino gehiago, 20 puntu.

Guztira gehienez 30 puntu lortu ahal izango dira.

4. Urteko ekonomia-memorian agertzen den diru-balantzeko diru-sarrerak enpresa edo entitate pribatuetako jatorria duten (babesa edo laguntzak) kontuan hartuko da. Horretarako, sarrera horiek diru-sarrera osoarekiko diren portzentajearen arabera puntuazio bat aplikatuko da. Zehazki, honela baloratuko dira:
  - a. Diru-sarreren % 10 arte, 0- 5 puntu bitartean.
  - b. Diru-sarreren % 10etik 20ra arte, 5-10 puntu bitartean..
  - c. Diru-sarreren % 20tik 40ra arte, 10-15 puntu bitartean.
  - d. Diru-sarreren % 40 edo hortik gora, 15-50 puntu bitartean.

Guztira gehienez 50 puntu lortu ahal izango dira.

5. Autonomia-mailan edo hortik goragoko liga erregularretan lehiatzen duten talde bakoitzarengatik 40 puntu jasoko ditu entitateak.
6. Atal honetan lortutako puntuak gehienez ere bider 1,10 biderkatu ahal izango dira baldin eta taldeak Berdintasun Plana aurkezten badu eta horren balorazioa eta garapena egokitzat jotzen badira.

Irizpide hauen arabera kirol entitateentzako dirulaguntzen % 45a banatuko da. Puntuaren balioa kalkulatzeko, lehenengo kirol entitateek lortutako puntu guztien batuketa egingo da, eta gero, udal aurrekontuetan onartuta dagoen diru-kopuruaren % 45a batuketa horren emaitzaz zatituko da.

Ondoren, eta entitate bakoitzari dagokiona zehazteko, puntuaren balioa entitateak lortutako puntuekin biderkatuko da.

#### 71.2.- KIROL ENTITATEEK ANTOLATZEN DITUZTEN IZAERA BEREZIKO EDOTA NOIZEAN BEHINGO KIROL-JARDUERETARAKO DIRULAGUNTZA.

Kiroletako eranskinetan, entitateek antolatzen dituzten ekintza bakoitzeko D11 fitxa bat bete beharko dute. Begarako Udal Kirol Batzordeak urte horretako eskaera guztiak aztertuko ditu. Beharrezkoa izan daitezkeen kasuetan, eta izaera bereziko jardueren konplexutasuna dela-eta, hainbat kirol entitateri argibide eta agiri gehiago eskatzeko aukera izango du. Azterketa ostean, jarduera bakoitzerako urteko diru-partidaren arabera banaketa egingo du.

Begara Hiria emakumezkoen torneoak atal honetatik kanpo geratzen dira.



Puntuazioa honako irizpideen arabera banatuko da; partaide kopurua, herrian duen oihartzuna, herriko posizionamenduan duen eragina, ekitaldiaren kirol maila, genero-ikuspegiaren txertaketa, eramangarritasun ekonomiko eta ekologikoa, bizi-ohitura osasungarrian duen eragina, euskararen erabilera, zenbatgarren edizioa den eta aurrekontua.

Atal honetan lortutako puntuak gehienez bider 1,10 biderkatu ahal izango dira baldin eta taldeak antolatutako ekitaldien Eramangarritasun Plana aurkezten badu eta horren balorazioa eta garapena egokitzat jotzen badira.

Atal honetan dirulaguntzen % 25a banatuko da.

### 71.3.- KIROL ENTITATEEK UDALAREKIN BATERA ANTOLATZEN DITUZTEN KIROL-JARDUERETARAKO DIRULAGUNTZA

Kirol entitateak zerrendatu beharko ditu zein ekintzatan eta zenbat egunetan hartu duen parte Eskola Kirolean, Uda Kanpainan, Kirola Kalera egunetan, Bizikleta Jardunaldietan, Mendi Astean...

Puntuazioa honako irizpideen arabera banatuko da: % 60 Eskola Kirola programan parte hartzen dutenen artean, bereiziz partaidetza puntualak, astebete edo bi asteoak, edota iraunkorrak. Beste % 40a banatuko da Kirola Kalera egunetan, Bergara Oinez programan, Bizikleta Jardunaldietan, Mendi Astean, Uda Kanpainan, Bigarren Eskuko Kirol Materialaren Azokan edo beste elkarlaneko proiektu berezietan parte hartzen dutenen artean.

Atal honetan dirulaguntzen % 10a banatuko da

### 71.4.- KIROL ETA BULEGO MATERIALA EROSTEKO EDO ELKARTEEN LOKALETAN HOBETUNTZAK EGITEKO DIRULAGUNTZA

Kirol elkarteek, eskaera egiterakoan, oinarritzko informazioa aurkeztu beharko dute, asmoa azalduz eta justifikatuz, eta aurrekontu zehatza ere aurkeztuko dute, azalduz zeintzuk diren erosi nahi dituzten kirol-material edo bulego-ekipoak edota lokala/biltegia ekipatzeko edo hobetzeko proposamena.

Udalak gehienez gastuen % 75eko ekarpena egingo du eta gehienez 1.500 euroko laguntza emango dio proiektu bakoitzari.

Finkatutako diru-kopurua ezarritako irizpideak betetzen dituzten taldeen artean banatuko da, saiatuz elkarte bakoitzari gutxienez proiektu batean laguntzen.

Atal honetan dirulaguntzen % 10 banatuko da.

### 71.5.- EUSKARAREN ERABILERA

Hartuko den adin-tartea: 18 urtetik azpikoak.

Kirol elkarteek urteko helburuak finkatuko dituzte Euskara Zerbitzuaren laguntzarekin, urtez urte, euskararen normalizazioan sakontzen joateko. Euskara Zerbitzua izango da, halaber, finkatutako helburuen betetze-maila ebaluatuko duena.

Adostutako helburuak betetzen dituzten taldeen artean banatuko da finkatutako diru-kopurua.



Atal honetan dirulaguntzen %10 banatuko da.

### **72. artikulua. Erabakia hartzeko prozedura**

Txosten teknikoa egin ondoren, Udaleko dagokion batzorde informatzaileak dirulaguntza emateko proposamena bidaliko dio Alkateari edo hark delegatutako organoari, erabakia har dezan.

Erabakia hartzeko bi hilabeteko epea izango du gehienez –eskaera dokumentazio guztiarekin aurkezten denetik kontatzen hasita–.

Epe hori igaro ondoren Udalak eskaeraren baten gainean berriazko erabakirik hartuko ez balu, ulertu ahal izango da ez dela eskaera hori onartu.

Erabakiaren proposamena formulatu aurretik, Udalak beharrezko deritzon informazio osagarri guztia eskatu ahal izango du dagokion departamentu arduradunak egindako errekerimenduaren bitartez.

### **73. artikulua. Erabakiaren edukia**

Erabakiak oinarri orokorretako 9. artikuluan jasotako edukia izango du.

### **74. artikulua. Onuradunen obligazioak**

Oinarri orokorretako 11. artikuluan jasotako betebeharrak bete behako ditu.

### **75. artikulua. Dirulaguntzaren justifikazioa**

1.- Dirulaguntzaren justifikazioa 2027ko urtarrilaren 31 baino lehen egingo da.

2.- Dirulaguntza justifikatzeko eta dirulaguntza ordaintzeko aurkeztu beharreko agiriak ondorengoak dira eta behar bezala beteta eta sinatuta aurkeztu beharko dira:

- a) Dirulaguntza ordaintzeko eskaera, F0098 (D20) inprimakia erabilita.
- b) Balantzea, F0098 (D22) inprimakia erabilita.
- c) Aurrekontuarekiko desbideraketa garrantzitsuenak, F0098 (D23) inprimakia erabilita.
- d) Gastuen zerrenda (gastu totala, ez udalak emandako laguntzaren parekoa soilik) sailkatua, F0098K (D24) inprimakia erabilita.
- e) Diru-sarrera guztien zerrenda sailkatua, F0098 (D25) inprimakia erabilita.
- f) Jarduerak justifikatzeko memoria, F0098K (D26) inprimakia erabilita
- g) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarreraren edo dirulaguntzen xehetasun-zerrenda, haien zenbatekoa eta jatorria adierazita, eta agiriak erantsita. Bestelako dirulaguntzarik ez badute jaso, horrela adierazi beharko dute.
- h) Programatutako jardueri buruzko dokumentazio grafikoa (kartelak, esku-programak, liburuxkak, banatutako idatzizko materiala, prentsa-oharrak, etab.).



Halaber, Udalak ofizioz egiaztatuko du Bergarako Udalarekiko ordainketak egunean dituela eta jarduera burutu ahal izateko Bergarako udalarekiko betebeharrak guztiak betetzen dituela.

Baldintzak edo betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko, Bergarako Udalak honako kontsulta hauek egingo dizkie beste administrazio batzuei:

- Foru Ogasunak:
  - Zerga-betebeharrak egunean izatea.
- Gizarte Segurantzak:
  - Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean egotea.

Interesdunak era arrazoituan bere datuak kontsultatzearen aurka egiten badu, dirulaguntza izapidetu ahal izateko behar den dokumentazio guztia aurkeztu beharko du. Hala badagokio, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- Dagokion Foru Ogasunaren ziurtagiria, zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duena.
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duten Gizarte Segurantzaren ziurtagiriak.

**OHARRA INPRIMAKIEN INGURUAN:** Inprimakiak interesatuen eskura egongo dira udaleko web-orrian, tramiteen atalean: <https://www.bergara.eus/tramiteak>

## 5. KAPITULUA

### ***Ingurumen-entitateek egiten dituzten urteko jarduerak finantzatzeko laguntza programa***

#### ***76. artikulua. Xedea***

Oinarri-arau hauen xedea da Bergarako udalerraren eremuan ingurumen izaerako jarduerak egiteko diren dirulaguntzak emateko deialdia erregulatzea.

Dirulaguntza jasoko dute Bergarako udalerrian 2026ko urtean irabazi asmorik gabeko talde, elkarte eta erakundeek egindako ingurumen izaerako ekintzek, oinarri hauen hurrengo artikuluan zehaztutako esparruetan.

#### ***77. artikulua. 2026. urtean lehentasuna izango duten jarduera esparruak***

Bergara 2030 Egin Herrixa Plan Estrategiko Jasangarriak ezarritako 1. Helburu estrategikoa “*Hiri-eredu inklusibo eta jasangarria sortzea, herritarren ongizateari begira dagoena eta klima aldaketa arintzeaz gain, horretara egokitzen dena*” lortzen laguntzeko, helburu horren baitan jasotako honako programen xede eta izaerarekin lerrotzeko diren, edota programa horietan jasotako ekintzak burutzen dituzten proiektuak lagunduko dira diruz:



*P1.2. Hiri-mugikortasun jasangarriaren garapena bultzatu:* lerro honetan mugikortasun jasangarria bultzatzeko proiektuak lagundu ahalko dira, bereziki bizikletaren erabilera sustatzera bideratuak.

*P1.3. Berdeguneen eta natura-ondarearen kudeaketa-eredu berria sustatu:* lerro honetan natura-ondarea babestu eta hobetzeko, natura-ondarearen ezagutza hobetzeko, lurzaintza eta antzeko ereduak sustatzeko, zein herriko berdeguneak zabaltzeko proiektuak lagundu ahalko dira.

*P1.4. Klima-aldaketa arintzeko energia-trantsizioa ahalbidetu eta klima-aldaketara egokitzeko baliabideak definitu:* lerro honetan udalerriko sektore ezberdinetan energiaren aurrezpena eta eraginkortasuna bultzatzeko eta aldaketa klimatikora egokitzeko ekintzak jasotzen dituzten proiektuak lagundu ahalko dira.

P1.5. Natura-baliabideen erabilera arduratsua sustatu, herritarren osasuna eta herriaren ingurumen kalitatea zainduz: konpostatzea sustatzeko ekimenak, hondakinen murrizketa, berrerabilpena eta birziklapena sustatuko duten proiektuak, elikagaiak ez xahutzera bideratutako ekintzak edo proiektuak edo ekonomia zirkularrean oinarritutako proiektuak lagundu ahalko dira.

P1.6 Tokiko ekoizpena eta bertako zein hurbileko produktuen sustatzea: lerro honetan, km0 edo hurbileko kontsumo ereduak eta elikadura burujabetza bultzatzen dituzten ekimen edo proiektuak lagundu ahalko dira.

### **78. artikulua. Helburuak**

Herritarren parte hartzea eta herritarrek bultzatutako interes sozialeko jardueren sustapena da helburu nagusia, beti ere Bergara 2030 Egin Herrixa Plan Estrategiko Jasangarrian jasotako 1. helburu estrategikoa gauzatzeko zehaztutako ekintza programen garapenaren testuinguruan.

### **79. artikulua. Diru-izendapena**

Programa honen xede diren dirulaguntzetara bideratutako diru-kopurua 3.000 eurokoa da eta finantzatuko da Ingurumeneko dirulaguntzak kontu-sailaren kontura (1 2800.482.172.10.01 2026 – B.K. 630).

### **80. artikulua. Departamentu arduraduna**

Hirigintza eta Ingurumena.

### **81. artikulua. Onuradunak**

Laguntza jaso ahal izango dute, Bergaran egoitza eta jardun eremua daukaten irabazi asmorik gabeko erakunde eta elkarteek, horien helburuen eta jardueren artean badaude ingurumenaren kontserbazioa, hobekuntza eta zabaltze zein sentsibilizazioa.

Oinarri orokorretako 3 artikuluan jasotako baldintzez gain honako baldintza hauek ere bete beharko dituzte:



- a) Betebehar fiskaletan eta Gizarte Segurantzakoetan egunean egotea; baita Bergarako Udalarekin ere.
- b) Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. ataletan adierazitakoaren arabera, dirulaguntza jaso ezin izateko kausetako batean ez egotea.

Ez dira Bergarako Udalaren dirulaguntzen onuradun izango sexuaren aldetik edo 1/2023 Legegintzako Dekretuak, martxoaren 16koak, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duenak 3-1 artikuluan jasotako diskriminazio anizkoitzeko faktoreen aldetik diskriminatzaileak diren jarduerak egiten dituzten pertsona fisiko edo juridikoak. Era berean, ez dira onuradun izango sexu-diskriminazioagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik administrazio-zehapena edo zehapen penala jaso dutenak ere, dagokion zehapenean ezarritako aldian.

Halaber, ezin izango dira onuradun izan honako egoeratakoren batean aurkitzen diren pertsona fisiko edo juridikoek:

- a) Epai irmoz zigorturik daudenak dirulaguntzak jasotzeko eskubiderik ez izatera, 38/2003 Legearen, Tratu Berdintasunari eta Diskriminaziorik Ezari buruzko uztailaren 12ko 15/2022 Legearen, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauaren edo aplikagarri den beste zeinahi arauen arabera.
- b) Indarreko legeriak botere publikoei dirulaguntzak ematea galarazten dien edozein inguruabarren pean daudenak.

### ***82. artikulua. Eskabideak aurkezteko modua***

Interesatuak laguntza-eskaera Udaleko Erregistro Elektronikoko Orokorrean aurkeztu beharko du, udalak horretarako propio sortutako eskaera-inprimakia(k) erabilia eta oinarri hauetan zehaztutako dokumentazioa gehituta. Ez da beste dokumenturik onartuko.

### ***83. artikulua. Eskabideak aurkezteko epea***

Dirulaguntza hau eskatzeko epea 30 lanegunekoa da, deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

### ***84. artikulua. Eskaera egiteko aurkeztu beharreko agiriak***

Dirulaguntzak eskatzeko honako dokumentuak behar bezala beteta eta sinatuta aurkeztu beharko dituzte:

- Dirulaguntza-eskaera, F0098A (D01) inprimakia erabilia
- Dirulaguntza-eskaera - Entitatearen datuak, F0098 (D05) inprimakia erabilia



- Dirulaguntza-eskaera - Entitatearen jardueren programa, F0098 (D06) inprimakia erabilita
- Dirulaguntza-eskaera - Aurrekontua, F0098 (D07) inprimakia erabilita
- Diruz laguntzea nahi den programa edo ekintzaren memoria zehatza (epeak, metodologia, helburuak, baliabideak, arduradunak, aurreikusitako parte hartzea). Aipamen berezia egingo zaio *Bergara 2030 Egin Herrixa* Plan Estrategiko Jasangarriaren 1. helburu estrategikoko ekintza programaren edo programen garapenari egin nahi zaion ekarpenari.
- Diruz laguntzea nahi den programa edo ekintzaren esparruan eskatzaileak duen ezagutza eta esperientziari buruzko txostena.
- Diruz laguntzea nahi den programa edo ekintzaren aurrekontu xehatua.
- Proiektuaren ezaugarriengatik beharrezkoa dela ikusten badu, jarduera garatzeko eskatzaileak beste erakundeetan eskuratu beharko duen baimen idatziaren kopia ere eskatu ahal izango dio Bergarako Udalak.

#### **85. artikulua. Eskabideak baloratzeko irizpideak**

Oinarri-arau hauetan arautzen diren laguntzak kalkulatzeko, irizpide hauek aplikatuko dira, atal bakoitzeko hemen jasotzen den puntuazioarekin:

- Proiektuaren kalitatea: helburuak, metodologia, iraupena, baliabideak, berrikuntza maila, Intereseko habitaten zein espezie mehatxatuen ezagutzan proiektuak egingo duen ekarpena, ondorioak inplementatzeko aukera etab.; gehienez ere 40 puntu arte.
- Entitatearen Ingurumen-ezagutza eta ingurumen-jarduerak garatzen duen esperientzia, baita proiektuari lotutako lan-taldearena; gehienez ere 20 puntu arte.
- Emakumeen presentzia eta parte-hartzea elkartearen eremu guztietan (zuzendaritzan, bazkideen artean, erabiltzaileen artean, etab.); emakume eta gizonen berdintasuna sustatzeko neurriak aurreikustea (emakumeen parte-hartzea sustatzeko, sexuaren araberako estereotipoak gainditzeko, bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna errazteko, etab.); gehienez ere 5 puntu arte.
- Bergara 2030 Egin Herrixa Plan Estrategiko Jasangarriaren 1. helburu estrategikoaren garapenean egiten duen ekarpena; gehienez ere 20 puntu arte.
- Proiektuak eskaintzen duen parte-hartze maila; gehienez ere 15 puntu arte.

Edozelan ere, programa honetan aurreikusten diren laguntzak lortzeko, gutxienez 50 puntu lortu behar dute aurkezten diren proiektuek.

#### **86. artikulua. Erabakia hartzeko prozedura**

Txosten teknikoa egin ondoren, Udaleko dagokion batzorde informatzaileak dirulaguntza emateko proposamena bidaliko dio Alkateari edo hark delegatutako organoari, erabakia har dezan.



Erabakia hartzeko bi hilabeteko epea izango du gehienez –eskaera dokumentazio guztiarekin aurkezten denetik kontaktzen hasita–.

Epe hori igaro ondoren Udalak eskaeraren baten gainean berariazko erabakirik hartuko ez balu, ulertu ahal izango da ez dela eskaera hori onartu.

Erabakiaren proposamena formulatu aurretik, Udalak beharrezko deritzon informazio osagarri guztia eskatu ahal izango du dagokion departamentu arduradunak egindako errekerimenduaren bitartez.

### **87. artikulua. Erabakiaren edukia**

Erabakiak oinarri orokorretako 9. artikuluan jasotako edukia izango du.

### **88. artikulua. Onuradunen obligazioak**

Oinarri orokorretako 11. artikuluan jasotako betebeharrak bete behako ditu.

### **89. artikulua. Dirulaguntzaren justifikazioa**

1.- Dirulaguntzaren justifikazioa 2027ko urtarrilaren 31 baino lehen egingo da.

2.- Dirulaguntza justifikatzeko eta dirulaguntza ordaintzeko aurkeztu beharreko agiriak ondorengoak dira eta behar bezala beteta eta sinatuta aurkeztu beharko dira:

- a) Dirulaguntza ordaintzeko eskaera, F0098 (D20) inprimakia erabilita.
- b) Balantzea, F0098 (D22) inprimakia erabilita.
- c) Aurrekontuarekiko desbideraketa garrantzitsuenak, F0098 (D23) inprimakia erabilita.
- d) Gastuen zerrenda (gastu totala, ez udalak emandako laguntzaren parekoa soilik) sailkatua, F0098K (D24) inprimakia erabilita.
- e) Diru-sarrera guztien zerrenda sailkatua, F0098 (D25) inprimakia erabilita.
- f) Jarduerak justifikatzeko memoria, F0098K (D26) inprimakia erabilita
- g) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarreraren edo dirulaguntzen xehetasun-zerrenda, haien zenbatekoa eta jatorria adierazita, eta agiriak erantsita. Bestelako dirulaguntzarik ez badute jaso, horrela adierazi beharko dute.
- h) Programatutako jardueri buruzko dokumentazio grafikoa (kartelak, esku-programak, liburuxkak, banatutako idatzizko materiala, prentsa-oharrak, etab.).

Halaber, Udalak ofizioz egiaztatuko du Bergarako Udalarekiko ordainketak egunean dituela eta jarduera burutu ahal izateko Bergarako udalarekiko betebeharrak guztiak betetzen dituela.

Baldintzak edo betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko, Bergarako Udalak honako kontsulta hauek egingo dizkie beste administrazio batzuei:

- Foru Ogasunak:
  - Zerga-betebeharrak egunean izatea.
- Gizarte Segurantzza:



- Gizarte Segurantzako betebeharretan egunean egotea.

Interesdunak era arrazoituan bere datuak kontsultatzearen aurka egiten badu, dirulaguntza izapidetu ahal izateko behar den dokumentazio guztia aurkeztu beharko du. Hala badagokio, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- Dagokion Foru Ogasunaren ziurtagiria, zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duena.
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duten Gizarte Segurantzaren ziurtagiriak.

**OHARRA INPRIMAKIEN INGURUAN:** Inprimakiak interesatuen eskura egongo dira udaleko web-orrian, tramiteen atalean:

<https://www.bergara.eus/tramiteak>

Bergara, 2026ko apirilaren 1a

Jarduneko Alkateak